

# ANAITASUNA

196 zenb. 1970

IRAILAK-30

Jardin Txikerra, 1 BILBAO-12

## FILME BERRIA

Ba genkian, bilbotar gazte batzuk filme berri bat egitekotan zirela; eta hala xe adierazi genduan aldizkari honetan, nahiz eta albistea soil soilik eman. Orain, filme berri horren zuzendariarekin eta lehenengo interpretearekin mintzatu ondoren, ba daukagu berri zehatzagorik emateko ere.

Dinogun bezala, laster egiteko diren filme horren zuzendariagaz egon gara, eta magnetofonoaz jaso genduan elkarrizketa dakargu hemen, jendearen irakurgarri.

—Mesedez, esango al deuskuzu zure izena?

—Juan Maria Insunza.

Juan Mari mutil gazte bat da oraindik, luzea, ta gorputz dotore baten jabea.

—Nongoa zara?

—Muxikarra, baina aspaldion Bilbon bizi naiz.

—Beraz\*, euskeraz jakingo dozu?

—Bai, bai. Jakin eta hitz egin ere bai.

—Zelan hasi zara zinea egiten?

—Begira, ni fotozalea naiz, fotoegile esan nahi dot. Eta hortik zine egitera, ausardiako\* pauso bat baino ez dago.

—Orduan, seguru asko, zinerako ikasketak egingo zenduzan.

—Bai, Madrilen ari\* naiz ikasketak egiten.

—Emaiguzu, otoi, zure asmoetan dauden filme horren berri.

—Filmearen gloia neurea da, ta zuzendu ere neuk egiten dot. Zer gehiago esan neiskizu?

—Pelikularen izena?

—«La escapada del sol».

—Eta gaia?

—Gaia, izatez, gerra denborakoa da, gerratean egina, geure gerratean. Baina gerra, atxakia bat baino ez da. Ez dot gerrarik aipatzen, beste pentsakizun batzuk azaltzeko bide bat bezala baino. Soldadu baten historia da. Soldadu hori bakarrik sentitzen da, beste pertsona batzuen premia\* dauka, ta besteak maitatu beharra sentitzen dau.

—Beraz, pertsonen adiskidetasun edo maitasuna aipatzen dozu?

—Bai, hala da.

—Eta zer dinoskuzu azkenean? Soldaduak pertsonak malte ahal dituala, eta pozarren gelditzen dala...?

—Bai eta ez. Maitatua izatea nahi dau, maitatzen dau eta pozik sentitzen da; baina gerran dabil, eta gerraren mina eta etorkizun arriskugarria ezin ditu baztertu.



MIKEL ZUGATZA

—Non egiten dozu filmea?

—Sopelanan hasten gara, gero Bilbo hegaleko Oilarganen, Gorozikan, Foruan, Zornotzan, Lekeition, Lagan, Ean, eta abar. Trenbide ta estazioak sarritan ikusten dira, soldadua bere etxera etortzerakoan, eta abar.

—Nork egin izan dau musika?

—Estitxuk.

—Musika berria, ala orain arte entzun deusaguna?

—Ez. Musika berria da, Estitxuk berak egina: melodia polit eta hunkigarria. Gure asmoa, jendeak zinetokitik irterterakoan\* doinu hori kantatzea da, eta gure desira\* hori lortuko dogula uste dogu.

—Eta kantatu ere Estitxuk berak egingo al dau?

—Bai, eta Libaronak ere bai. Doinua, Zornotzako mutil koxkor batek loten dau. Eta hau ere kontuan izatekoa da: kanta guztiak euskeraz dira.

—Kantak? Eta pertsonalen\* berbak ere bai?

—Ez. Berbak erdera hutsean dira, «ama», «agur» eta holakoak izan ezik.

—Penagarria da. Guk uste genduan, euskeraz gehiago egingo zenduela. Zergatik ez?

—Oraingo, peninsula osorako egin gura dogu. Gero, ondo ateratzen bagara, beste pelikula bat egingo dogu, eta euskeraz egiten saiatuko gara.

—Hala izan dadila. Eta zeln Interprete dozue?

—Mutil hau, neure lagun hau dogu interprete nagusia.

—Izena, mesedez?

—Mikel Zugatza.

—Urteak?

—Hemeretzi.

—Ta nor gehiago?

—Gero, honekin pareja eginik, Beatriz Galbo, 17 urteko artista.

—Zeln zine etxek egiten dau pelikula hau?

—Bilboko «Films Internacional» etxeak.

—Noizko egingo dozue zuen filme hori?

—Urte bete barru uste dot, amaituko dogula.

—Hala danean, joango gara ikustera, eta kritikatu ere egingo dogu zuen lana.

—Mila esker.

ANJEL ZELAIETA

## 12 HARRIETATIK

Bizkaiko C.I.T.-ek argitaratutako azkenengo aldizkaria, gehienbat Durangoaldeari eskainita\* dago. Bertan agertzen dira, beste gauza askoren artean, eskualdeko\* ohitura, herri kirola\*, janari, argazki\*, eta abar.

Egunokaz hil da Caracasen, 63 urte dituala, Durangoko seme izan dan Ignacio Zuloaga margolaria\*, «el mozo» izen herrikoiagaz ezagutuagoa. Bilbon hil da Kamiruaga margolaria ere, hau ere Durangoko semea.

Hilabete honen 5-etik 13-rarte ospatu ditue Elorrión «Feria Nagusiak» izenagaz ezagutzen diren jaiak. Aste honetako jaiak bertako gazteek antolatuta egon dira, Udalaren laguntasunagaz eta haren babesean. Apur bat gainetik begituta, uste dot, gazte honeen ahaleginak, jai herrikoi batzuk lortzeko, txalogarriak izan direla eta gehienbat lortuak. Aste honen barruan ikusi dira Elorrión: «Ez dok amairu», idi probak, ume jolasak, soka muturrak, «Argia» dantza taldea, soinu taldeak, eta abar. Ume, ezkonberri eta mutil helduentzat ere egun bereziak egon dira. Euskera maiz\* erabili da; baina, hala ta guztiz ere, ba dago oraindik eginbehera eta non lan egin sendo. Irakatsi ederra Elorrioko Udalak\* eman dauana, jai honeen ardura herriko gazteen eskuetan utzia\*. Eta Irakatsi ederragoa oraindik gazteriarrena, konfidantza honen merezigarri izan dalako. Zorionak, gazteok.

Durangoko Tabira Mendizale Elkartearen hileroko irteera\*, urriaren 11-n izango da Pagozelai mendira.

Mallabian, Gerediaga Elkartearen babesean eta herriko laguntasunagaz antolatuta, Euskal Herriko Artzain Txakurren IV. Txapelketa ospatu zan Zengoitiganen, irailaren\* 6-an. Hamalau txakurrek parte hartu eben bertan: Hego Euskal Herriko lau herrialdeetatik hiruna, eta ihazko\* lehenengoa ta bigarrena. Aurtengo txapelketan Mañariko «Riki» izan zan lehenen, «Chavala» Tartanga-Arabakoa bigarren, eta «Txato» Axpe-Martzanakoa hirugarren. Lehenengo bost txakurren artean, lau Durangoaldekoak ziren. Txapelketa hau Euskal Herrikoa bada, ea datorren urtean Iparraldeko txakurrak ere ikusten ditugun bertan.

Hilabete honetan zabaldu dira, Ezkurdiko enparantza\* berrian, Durangoko Udalak egindako arte-gelak. Lehenengo agerketa honetan Gipuzkoako lau margolarien lanak agertu dira. Aurten agertuko diren beste batzuk, honeek dira: Jose Manut, Luis Sanz eta Ibarrola margolarien zenbait\* obra, Euskal Herriko 100 baserri etxeren argazkiak\*, eskulturak, eta abar.

Zaldibarko Udalak, herriko «Coral»-aren kabuz\*, Severo Aranzamendi Etxebarria izena ezarriko deutso herriko kale bateri. Gizon hau ospe ta zeresan haundikoa zan herri honetan. Ondarroatarra jatorriz, midiku ikasketak Valladoliden amaitu zituan. Berriatuan egindako urte batzuk kenduz gero, bere bizitza guztia Zaldibarko gaixotegian igaro eban.

Durangoko Gazte Elkartearen lehenengo urteurrena betetzen dala ta, bertako batzordeak\* gazteentzako aste bat antolatu dau. Aste honetarako eratuta daukaz hizketaldiak, arte erakusketak, bertso txapelketak euskeraz eta erderaz, osterak\*, dantza txapelketak, zahartzaroari omenaldiak, abesti saioak, familia elkartekoak elkarriketak, eta abar.

Abadiñoko dantza taldeetako ume ta gazteek aste bete egin dabe Plentziako baserri batean, udako oporretan\*. Eta Durangoko Tronperri taldekoek, Natxituan.

Udagoien honetan hasiko jakuz alfabetatze kanpainak eskualdean\*; dakigunez, Otxandio eta Abadiñon izango dira lehenengoak. Ea beste herriek ere bide honeri jarraitzen deutsoen.

Urriko 10, 11, 12, 13 eta 18-an ospatuko dira Durangon San Fausto jaiak.

Aurten, Mallabi ta Elorrioko idi probetan, Aiakoak izan dira nagusi. Mallabian Iruretagoiena, eta Izeta Elorrión; lehen esan dogun legez, biak Aiatarrak, giputzak.

Eskualdeko eskola ta ikastoletan hasia da aurtengo ikastaroa, lege berriek agintzen daben bezala.

JOAN ANTONIO AROMA

## GALDAKANO

### Euskal Kultura Astea

Herriko gaztediak antolatuturik, Jarralan agertzen diren hitzaldiak emango dira. Irailaren\* 28-an, astelehenez, «Literatura Vasca del Siglo XX», Xabier Kintanak. 29-an, asteartez\*, «Arquitectura», Jambier Arguinzoniz, Iñaki Peña eta Anton Aguirregotiak. Irailaren 30-ean, asteazkenez\*, «Geografía», Jose Luis Lizundiak. Urriaren 1-ean, ortegunez\*, «Ama Lur» filmea, «Regio» zinetokian. Urriaren 2-an, ostiralez\*, «Música», Jose Antonlo Aranak. Urriaren 3-an, larunbatez\*, Euskal Jaia, «Regio» zinetokian, gaueko 10 t'erdietan: Natxo, Mario eta Itziar, «Itxaropen», «Txairo», «Argia» ta «Larraiza» dantzari taldeak, San Anton» orfeoia, eta abar. Urriaren 4-ean, igandez\*, Umeen Jaia, karrozen kalejira, pelota partiduak eta erromeria.

Hitzaldiak «Gran Cinema» antzokian izango dira, iluntziko 8-etan.

Juan Martín jaunari hitzaldi bat eskatu jakon, eta, erderaz eman behar ebala jakitean, ez eban onartu eskarla. Gure ustez ere, Galdakanon ez dago arrazoi haundirik, hitzaldiak euskeraz ez egiteko. Aurten egiten ez badira, gutxiago hurrengo urtean. Jendea ez da euskeraz hitz egiten hasiko, horretaraxe behartzen ez bada.

### Jaien programaren inguruan

1970-eko jaien programa ikusi ondoren, gogorapen batzuk izan ditut. Programa horretan jartzen diren anuntzio guztiak erderaz eginak dira, ANAITASUNA aldizkariarena izan ezik. Arrazoiak, bat bakarra baino ez da: ohitura da erderaz egitea, eta erderaz egiten dira. Baina nik uste dot, hurrengo urtean anuntzio asko euskeraz egitea.

ANJEL ZELAIETA

## ELGOIBAR

### Artikurrik onena

ANAITASUNA, 193. zenbakia. Gure artean hamabosteroko idazlanik onena aukeratzean, «EUSKALTZAINDIA 1970» hautatu\* dogu. Arantzazuko bilera\* sarritan aipatua izan arren, ez baitogu\* hain garbi irakurri hango erabakia zer zan. Isilune horregatik sortu dira gure artean hainbeste buruzagi, eta nori jarraitu ez dakigunok beharrezkotzat hartu genduan Euskaltzaindiaren deia.

ANAITASUNA, 194. zenbakia. Batasunaren beharra ikusi eta sentitzen dogunok eta bertara jo gura dogunok, norbaiten laguntza behar dogu. Bide bat behar dogu, eta, bide hori pixkanaka erakusten bajaku, hainbat hobe. Horregatik Imanol Berriatuaren ohar eta erregelak onuratsu\* jakuz, eta, ale bakoitzean honelatsuko ikasgai txikiak azaltzeko eskatuz, 8. orrialdean agertzen dan haren lana aukeratzen dogu.

Ondoren, EZAGUTU GURE HERRIA eta EUSKALDUNGOA idazten dabenak laudatzea erabakitzen da. Bata, gure Herria ezagutzarako egiten dauan lan garrantzitsuagatik. Eta bestea, ANAITASUNA irakurtzean, hainbat albiste edo berri jakinarazten saiatzen dalako.

## ETXEBARRIA TA BARINAGA

Illaldapeko bidea ia amaituta dago. Harri kamioikada batzuk bakarrik falta dira. Baina, oraintxe ere, Abeletxeraino ondo joaten dira automobilak. Orain, Illerogaira ere bidea egiten dihardue.

Beste herri guztietan legez, irailaren\* hamabostean hasi dira eskolak. Mutikoentzat maisu berria izendatuta dago, ta herria ikusten izana da. Herriko Eskola Elkartekoek euren batzarra izan dabe: aurrerantzean ez da izango mutikoen maisuari aparteko diru-ematerik. Orain hamar urte, herriko Eskola Elkartekoek esanda, mutiko bakoitzeko honenbesteko bat hilabetero maisuei ematen hasi ziren gurasoak. Ordurik hona gauzak asko aldatu dira. Ta orain ohitura hori baztertzea erabaki dabe Eskola Juntaek. Orduetatik kanpora permanentziak egiten badira, edo aparteko eskolak eman, hori borondate hutsezkoa izango da, ta legeak dinoana ordaindu beharko da. Baina orain arteko pagamendua, mutiko guztiek egiten ebena, hori, hemendik aurrera ez da gehiago egingo.

«GURE HERRIA»

## LAZKANO

Lazkanomendi, Lazkanoko ballara\* bat da. Danak baserritarrak dira; eta benetan hauzoarte polita agertzen da ikusi nahi dauanarentzat.

Alde batetik gazteak aurrera doazela nabaritzen\* da. Ikusi baino besterik ez goen abuztuaren 2-an egin eben jaialdia. Benetako lana. Hilabetez hasi ziren antolaketan, eta geroztik izan eben eragozpenik asko. Danak baserritarrak direnez, ez zan hain erraza, uda erdian, gazte guztiak bateratzea, egin behar zana egiteko.

Gaztetxoetatik hasi eta 26 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu eben.

Esate baterako, ihazko\* Gabonetan elkar ezagutu ere ez ziren egiten, eta orain...

Hasiera, aparteko meza bategaz eman eben, San Joan Txiki deritxon eliza txikian. Hain meza xelebrea eta lehenengoa izanik, benetako arretarekin\* ospatu zan.

Hara zer inoan\* zahar batek: «Bakar bakarrik falta zoan, abade ez-dan batek meza ematea».

Ondoren, joko politikak ikusi genduzan. Elkartasun bazkaria ere ez zan falta izan, J. Lekuona tartean gendularik. Abestiak, bazka-lostearen alaigarri izan ziren.

Arratsaldeko bostetan, Lazkanomendikoek asmatu eta eratutako jaialdiari hasiera eman behar jakon; baina, altabozak zirela ta, beranduxeago hasi behar izan zan. Hala ere, gure gazteek euren a egin barik ez eben amaitu gura izan.

Hara zeintzuk ziren euren asmoak: Gazteen elkartasuna lortu, eta, gaurko, euskal giroa bizi ahal izateko, behar dan moduan gertuta egon.

Gauza guztiak horrela, nire barruan kezka bat sortzen jat. Lazkanomendiko gazteek egin daben lana behar dan bestean balortzen ote da? Hainbeste zalapartada eta azkeneko korrikak ikusita, horren duda etortzen jat burura. Euren barruan honako berbok entzun eltekezan: «Akaba arin, eta kitto».

Horregatik, orain, jaialdiaren pisua joan jakenean, ez dakit baina, atsedean luze samarra hartuko dabela uste dot.

Ez egin atzerantz. Pentsa eizue, zuek egin dozuen lana haundia dala eta oso beharrezkoa.

Beraz\*, jarrai eta ekin gogor. Pentsa, herria zuen zain eta begira dagoela; habian txorikumeak jatekoaren zain eta begira egon ohi diren bezala.

MIKEL U.

## MONDRAGOE

### FAGOR industriaren lantoki berriak

Hilabete honetan inauguratua izan da Mondragoen, Ulgor etxeak FAGOR izenarekin ateratzen dituan elektrodomestikoenzako beste lantegi bat. FAGOR etxeak bost erropa-garbitzaile tipo egiten ditu. Lantegi berri honek 50.000 metro kuadratu ditu eta 10 km. kate automatiko. Urtean 400.000 ale atera daitez.

Inauguratze horretan, Espainiako Industria ta Lagintzako ministroak izan ziren. Lantegi honek, adituek dinoenez, Europako Merkatu Batuan sartzeko bildurrik ez eta desira\* haundiak ei ditu, merkatu horretan nor ekerosi eta dirudun asko dira ta. Beraz\*, lantegi hau aberastasun haundi bat da Euskal Herriarentzat.

## AZPEITIA

### Itziar Bikendi hil da

Bere bizitzaren udaberrian, eta hainbat hilabete gaixorik egonda, Itziar Bikendik bere azken arnasa eman dau.

Itziarrek euskal alfabetatze kanpaleketan parte hartu eban, irakasle moduan. Euskal aldizkarietan ere idatzi dau; eta orain Donostian andereño izateko magisterio ikasten ziharduan, gaixoak hartu eban arte.

Euskaldun neska ta andrentzat, eredu\* eder bat izan da bere euskeraren ganako zaletasun biziagatik, eta bere hiriotzeak hutsune haundi bat uzten deusku.

## ARRATIA

1  
Arratiako zahar eta gazte,  
zerbait entzun eistazue.  
Bihotzak hutsik ikusi eta,  
eskean natorkizue.

2  
Entzun txorien kantu gozoak,  
entzun gizonen biraoa.  
Abereetan loi-zikinena  
ote da gure ahoa?

3  
Horra hor ardien elkartasuna,  
hemen gure gorrotoa.  
Dinogun legez, horrela zelan  
maiteko dogu Jainkoa?

4  
Neu ondo eta trankil banabil,  
ez deust ardura besteak;  
zertarako neu ilundu nehor\*  
zapalduta ikusteak?

5  
Nehor azpian larri badago,  
goian norbaiten ankea,  
inozente lez ez daigun esan  
«hau bai poza ta bakea».

6  
«Anaiak gara» danok dinogu  
bakarrik hartut'orduan;  
bueltea emanda, «konpondu zaitz»  
dinogu emat'orduan.

7  
Maitasuna ta zintzotasuna  
edonon agertu daigun;  
mundu guztian kristinatu legez  
beti izan da euskaldun.

8  
Guztlok hitzak sobran ditugu,  
egiteak behar dira.  
Zerbait egiten hasi galtezen,  
Arratiari begira.

9  
Arratlarrak, non nahi ta beti  
egin dagilgun euskera;  
gaztelanuek gura badabe,  
egin dalela erdera.

10  
Erdera elnda, gehio zarela,  
neska, zuk uste badozu,  
inozentea nonbait zarela  
zuzen agertutzen dozu.

11  
Ikasi erdera, prantses ta Ingles,  
bai ta ahal b'ozu aleman;  
baina lehenengo euskereari  
behar dauan dana eman.

12  
Arratiarra, agur bihotzez,  
barrilro ikusi arte;  
euskaldun legez guztlok bizi  
galtezen bien bitarte.

SEBAS



DANTZA TOKI GOXOA

LASTER ZABALTZEKO

KAFETEGI **AMALUR** RESTAURANTA

## Nafarren ardurak Bilbon «CESIN»-eko batzarrean

«Transportes y Carreteras» arloko hitzaldietan, Iruñea Pasaiko portuarekin elkartzeko autobidea kontuan hartzeko eskatu izan eben nafarrek «CESIN»-eko batzarrean. Eskaria onartua izan zan. Bertan izan ziren Asiain, Urmeneta eta Elizalde jaun diputaduak, Nafarroaren beharrianekin hainbeste arduratzen direnak. Eskari hau gartsuki egiten da Nafarroan, bestela herrialde hau oso atzeratuta geldituko lizateke ta.

## Historia ta ekonomiazko liburu berriak

Historiazko liburu bat prestatzen ari\* da Martínez Barde Coronela idazlea. Liburuak «Vizcaya» izenburua izango dau. Laster batean agertuko da.

Era berean, laster aterako da «Llodio: crisis de crecimiento» liburuak, Jose Manuel López eta Angel López de la Torre-ek egina. Liburuak «Caritas Diocesana»-k argitaratuko dau, Gasteizko Aurrezki Kutxaren laguntzarekin. Jose Manuel «Ciencias políticas y económicas»-etan lizentziatua da. Orain, Arabako Diputazioaren hurgintzarako\* burua da. Angel abadea da, eta «Ciencias Sociales»-etan lizentziatua izanez gainera, kooperatibei buruz oso aditua da.

## «Lartaun» abesbatza

Pozgarria guretzat Aita Donostiren lan bat aukeratua izatea Barcelonan, Europa guztirako egingo dan abesbatzen sariketarako. Lan hori Alemania, Holanda, Frantzia eta beste nazio batzuetako kantari taldeek batera abestuko dabe. Batzar horretan, hiru talde izanen\* dira Euskal Herriak: «Lartaun» oiartzundarra, «Iradier» gasteiztarra eta «Chantrea» iruñetarra. «Lartaun» taldeak, Barcelona joan orduko, 1.500 entzuleren aurrean, «Euskal Show» agertu eban, Jon Oñatibiak taldearen zuzendariak egindako lana.

## Arratiako abesbatza Araban

Areatzako\* talde hau, orain arte, urtean behin baino ez jaku agertzen izan; Santa Ageda egunez hain zuzen ere. Beste bide batzuk hartu ditu aspaldion. Lehenengoz, Herri Meza bat eratu izan dabe. Eta, gaurko ekintza bezala, horra hor Araba aldera egin daben ostera\* hori. San Miguel de la Cogollan Herri Meza abestu ostean, Nájera ta Labastidara joan ziren eskualde ha begitatzera. Zorionak arratiar abesbatzari. Eta jarrai, jakintza hainbestean aberastutzen daben ostera horreek egiten.

## Tafallako abestaldea

Oso txalotua izan da talde hau, Baionan eta Arrangoitzen egin dituan saio bietan. Baionan, beste hiru taldegaz abestu eben: bata Baionakoa, eta besteak Polonia ta Eskoziakoak. Arrangoitzen, euren bakarrean.

## Iruñeko korala

Bordeleko\* orkesta sinfonikuarekin abestu izan eban kantari talde honek Donibane Lohitzuneko Musika Aste nagusian. Nahiz eta jardunaldi hau eliza baten barrenean izan, jendeak, ezin isildurik, txalo beroak jo zituan, Iruñeko abesbatzaren saioa bukatu zanean.

## Abeslariak Legutianon

Irailaren\* 19-an, gauetz, euskal kantari berrien saioa izan zan Legutianoko\* herrian. Beste batzuen artean, «Oskarbi», «Itxaropen» eta Estitxuk abestu izan eben.

## «Itxaropen» kantari taldea ez da desegingo

Talde honetako kantari dan Josune Makibarrek adierazi deuskunez, nahiz eta bera Nafarroako Leitzañ lanean aritu\* eta entsaioetara hain sarri ezin joan, «Itxaropen» taldekoek aurrerantzean ere kantu lanean jarraituko dabe, lehengo lako gogo ta garrarekin. Poztutzen gara.

## Zizurkilan (Gipuzkoan) euskal jaia

Irailaren 12-an, Zizurkilgo Elbarena haurzunean, euskal jaiak izan ziren. Arratsaldean, Mendizabal harrijasotzailearen erakusketak, Lopategi ta Azpillaga bizkaitar bertsolariekin; jarraian, «trikitik» soinuarekin, dantza. Gaueko 10-etan, «Oskarbi», «Zigor», «Xabier Zaldias», Ibarredondo, Jon Illarramendi eta Hernaniko «Karmele» euskal abeslarien kanta saioak. Presentazio egiten, Lopategi ta Azpillaga bertsolariek.

## Alsasuan euskal jaia

Irailaren 12-an, Iruñeko dantzariak erakusketa eder bat eman eben Alsasuko «Burunda» frontoian. Ondoren, Tafallako abesbatzak kanta honek abestu zituan: «Maitia, nun zira?», «Haurtxo sehaskan», «Ume eder bat», «Ilunabarra», eta «Ama begira zazu».

## Irungo «Ametsa» abesbatza Tarazonara

Tarazonako katedralean «Missa Brevis» kantatzera joan zan, Irailaren 13-an, Irungo «Ametsa» abestaldea. Ondoren, Nafarroako Korellara joan ziren, eskualde ha ezagutzera.

## Txistulariak Orduñan

Araba ta Bizkai aldetik etorrita, 40 txistulari izan ziren Orduñan, irailaren 14-ean. Antiguako Andra Mariaren 25. urteurrena ospatzen zan. Kalejira egin ondoren, «Alkate Soinuak» jo eben. Ordu batetan kontzertua: «Agur Jaunak», «Orduña» zortzikoa, «Minuet», eta abar. Eta amaitzeko, «Gernikako Arbola».

## Urtain abeslari

«Triunfo» aldizkariak dihoanez, Bruselasko egunkari\* batean agertu ei dira Urtainen deklarazio batzuk. Hona hemen: Ukabilkari egin nintzen, horixe proposatu eustelako. Torero ere berdin izango nintzen. Pobre izan beharrak edozertara behartzen gaitu. Nire gaurko asmoa, munduko txapelidun izatea da. Biharkoa, hirulau aldiz txapelidun hori defenditu ostean, ukabilkalaritzari utzi eta orkesta bat eratzera, Frank Sinatraren gisa kanta goxoak abestuzeko. Horretarako abots berezi bat ei dot\*.

## Dantzari ta txistulari ikasketak Araban

Irailaren 30-erarte, era izan dabe dantzari ta txistulari izan nahi eukeen guztiek, txartelak betetzeko, eta horrela Diputazioak eratu dituan ikasketak hartzeko.

## San Antolinak Orozkon (Bizkaian)

Haserre agertu izan dira Orozkoko gazteak, aurtengo jaiak atontzerakoan. Batez ere Udaletxekoekin, jai honeen antolaketan parte hartzen ez deuseelako utzi. Norentzat dira, ba, herriko jaiak?

## Nafarroan ikastola berriak

Albiste ederrak datorkiguz Nafarroa aldetik ere. Aurtengo ikastorako, ikastola berriak irekiko dira jarraiko herrietan: Elizondon, Lizarran\*, Muskarian\*, Satrustegin eta Ultzamako herrietan\*.

## «Karmel» aldizkaria

Agertu berria da aurtengo «Karmel» aldizkariaren III. alea. Bertan aztertzen dau Pujana jaunak, ANAITASUNA-ren 188. zenbakian aditzari buruz agertu zan artikulu bat. Euskal idazleentzat ere itaun\* batzuk egiten dira. Azterketa honek asko laguntzen dabe, gure hizkuntza sakontzen. Jarrai bide horretatik.

## Euskal Astea Zarautzen

Irailaren 2-tik 9-rarte, Euskal Aste bat ospatua izan da Zarautzen. Aurreko igandean\* ospaturiko Dantzarien Eguna oraindik go-goan zalarik, berriz gogor lan behar izan dabe Zarauzko gazteek, aste hau antolatzeko. Hilabetearen 2-an, gaueko 10-etan, Tolosako «Oargi» antzerki taldeak I. Begiristainen «Bizia bizirik» antzeztu eban. 3-an eta 4-ean, «Frontón Cinema»-n gazte taldeen txapelketa, euskal dantza, abesti ta antzerkiak. Larunbatean\*, «Araba» ta «Oleskariak» abesbatzen jardunaldiak. Azkenez, Igandean, Umeen Eguna: euskal meza, dantza sariketak, Haur\* Txistularien IV. Txapelketa. Usain ederreko jaiak Zarauzko honek, nahiz eta kultura aldetik hitzaldi batzuen hutsunea izan.



### 8.423 traktore Nafarroan

Traktore honeekin, Nafarroa agertzen jaku península barruko herrialderik mekanizatuena. Traktore honeek bide direla, laborantzak egoera berri bat hartu dau. Batez ere «cosechadoras» deitutakoek hainbeste lan aurreratzen dabe; 1.165 dira honeetarikoak. «Cosechadora» bakoitzarentzat, 128 hektarea dira.

### Langileak lantoki gabe

«Beltrán y Casado» ta «Munguía Industrial» lantegietako beharginak lanik gabe utzi ditue. Oso txarto ei dabilta lantegi biok, Eta zorrean utzi deutseez ekain eta abuztuko alogerak. 634 langile dira, holan gelditu direnak.

### Aeroportu berria Arabako Forondon?

Bilbon egindako «CESIN»-en azken batzarrean, eztabaida batzuk agertu dira Arabako aeroportuaz. Non eta norentzako izango lizateke? Honetaz ere eritzi batzuk agertu ziren. Ba leiteke Arabarako izatea, baita Bizkai eta Arabarako ere. Dana dala, aeroportu hori egitekotan, Foronda dateke lekurik egokiena.

### 500 ume eskola gabe

Iruñeko San Jorge hauzunean arazo ikaragarri bat sortu da, eskolak direla ta. 500 haur aurkitzen dira, bizileku barren batzuetan ikasketak egiten. Bigarren urtea da, holan dagozena, eta ez da bidegabekeria hori zuzentzeko modurik ikusten. Noiz arte?

### «Axular Saria»

Iruñeko «Diario de Navarra» egunkariak sariketa bat eratu izan dau, lehen mailako Nafarroako ikastoletan, 1.500 eta 750 pezetako «Axular Saria» izeneko sari birekin, euskerazko artilju hoberenarentzat, euskal idazle haren oroitzenetan. Haurrek edozein gai erabil leike, ta inoren laguntza barik egin beharko dabe.

### Historiazko liburu berria

Zeresan asko dago, izan ere, 17. eta 18. mendean Amerikara joan ziren nafarretaz. Diru asko egin eben, orduan «Indietara» joan ziren glzonok. Honeekandik sortu zan, gizarteaz «burgesia» delten jakon giza-klasea. Nahiko agertzen dau guzti hori Alfonso de Otazu Llanak, 20 urteko idazle gazteak, bere «Hacendistas Navarros en Indias» liburuan. Gazte hau antropologiazko ikasketak egiten ari da, gal hau oraindik oso gutxi ezagutzen dala ta.

### Euskal Margolarien V. Sariketa

Irailaren 11-n eman zan sariketa honen epala. Pintura oso onak agertu ziren. Lehenengo saria, 60.000 pezetakoa, Lanbri Ipar euskaldunarentzat izan zan, bere «Galerie des Visages» lanagatik. Bigarren saria lau zatitan emana izan jaken margolari honeel: Carlos Sanz, Marta Cárdenas eta Vicente Amestoy donostiarrei, eta Luis Alvarez gasteiztarari.

### Tafallako ikastola

80 ikasle egon ziren, Joan dan urtean, Tafallako ikastolan. Aurreten hainbat gehiagoren esperantza dago. Ikastaro honetan, frantses hizkuntza ere irakatsia izango da. Ikastola honetako andereñoa, Nekane Zelaleta da.

### Hernaniko IV. Literatura Sariketa

«Soldadura y Productos Auxiliares, S. A.» deritxon lantegiak agertu izan ditu bere IV. Literatura Sariketarako arauak, erderaz eta euskeraz. Erderez, nobela laburra izanen da. Euskeraz, poemak. Nobela saria 30.000 pezetakoa izanen da, eta poemena 15.000 pezetakoa. Lan honek, urriaren 10-erako presentatu beharko dira.

### «Alava romana y prerromana» liburua

Holan delten da, Gasteizko irakasle dan Lurdes Albertok argitara eman dauan lana. Bertan aztertzen dira Arabako antzinako hizkuntza, kultura eta ohiturak. Herrialde honetan egiten zan hizkuntza Pirinioz beste aldean egiten zanaren antzekoa ei zan.

### Umeen Euskal Jaia Gaztelzen

1.500 ume baino gehiago ibili izan ziren Gasteizko kaleetan zehar. Irailaren 14-ean, urteko egunik ederrera bizi izan dau Gasteiz. Jal honen antolatzailea «Manuel Iradier» taldea izan zan. Jazoera hau alpatzerakoan, aipatu beharra dago umeen «alkateak» egin eban hitzaldia, batez ere euskera ta euskal ohiturak goratu zitualako. Ondorio ederra ekarriko ahal dau jaialdi honek Gasteizen!

### Donostiako Euskal Jaiak

Irailaren 5-etik 20-ra ospatu izan dira Donostian Euskal Jaiak: euskal jakintza, kirolak, doinu ta jolasak. Jakintza aldetik, hona hemen hizlarien izenak eta mintzaldien gaiak: Haritschelharrek «Piarres Topet Etxahun, Zuberotar olerkaria», Edorta Agirrek «Txalaparta», Juan Maria Lekuonak «Ahozko literatura eta euskal poesiaren estiloa», Juan San Martinek «Uhin berri; gauro euskal poesiaren bide berriak», Xabier Kintanak «Euskeraren batasuna lehen eta orain», J. A. Urbeltzek «Introducción al estudio de la danza vasca», eta abar. Euskal Margolarien V. Sariketa ere izan zan. Euskeraz ikasi daben herbestetarrei sarikak banandu jakezan. Kirola aldetik, arraunlariek, haizkolariek, bolariak, pelotariak jardun eben, eta batez ere hasiera eman jakon «Munduko Pelota Txapelketa»-ri. Folklore aldetik, aurrekuñariak, gaztetxoan dantza taldeak, Andolgo «Betl abeslariak», Juan Urteaga kantaria, «Stella Maris» eta «Sine nomine» koralak. Txalapartari, Irintzilarri ta trikiti soinuarien sariketak, bertsolariak, eta abar. Alpamen berezi bat merezi dau, hilabetearen 10-ean egin zan Umeen Egunak: txistulariak, haizkolariak eta idazleen sariketak.

Hitzaldietaz esan geinke, alderdi guztietatik oso interesgarriak izan direla. Jaiak, euskal usain haundikoak izan dira. Lan serioa benetan, Donostiako Udalaren laguntzarekin, Jabier Aranburuk, Juan Antonio Artzak, Edorta Kortadik eta egin dabena.

### Ordizian Bertsolari Berrien Txapelketa

Jende askorekin ospatu izan da Ordizian Bertsolari Berrien Txapelketa. Lehenengo txanda, irailaren 3-an izan zan. Hona hemen zeintzuk izan ziren parte hartu izan eben bertsolariak: Jose Ramon Ormazabal Zegamarra, Josu Auzmendi Idiazabaldarra, Eusebio Ibarzabal Gabiritarra, Jabier Zuberio Ixasondotarra, Juan M. Mugika Legorretarra, Bittor Agirre ta Iñaki Azarola Lepazpiarra, Jose Maria Etxaluze Zeraindarra, Rufino Iraola Zaldibiarra, eta Jose Eguren Arriandarra. Batzuek goizean eta beste batzuek arratsaldean egin eben euren ekinaldia. Epal-mahaikoak, Markos Amundarain, Luis Gabiria eta Lazkao Txiki izan ziren. Oso egokia txapelketa hau, bertsolari jatorrak, orain arte isilik egon direnak, agertu daitezten. Bitartean, «Goierri» taldeko txistulariek eman eben euren saloa, Ramon Aranburu zuzendari zalarik. Ordiziako jaien barruan, Irailaren 6-an izan zan 10 dantza taldeen saloa ere aipatu behar da. Parte hartu eben taldeok hego aldeko lau probintzietakoak ziren.

### Euskal alfabetatzerako akademia

Ba dakigu, Bilbon gazte batzuk akademia bat eratu nahirik dabilzala. Akademia horretan euskera ikasi nahiz landu gura dabeneztat eskolak emango dira, arratsalde osoan. Asmo txalogarria hauxe, lan luze ta serio honek frutu haundiak eman leikez eta. Zihurtasun eta zehaztasun gehiago dogunean, halaxe aditzera emango dogu.

### Andereñoen artean hauteskundeak

Baseko jenteak beharturik, Bilbon elkartu izan ziren, irailaren 18-an, 35 bat euskal irakasle, Bizkal aldean lanean ari direnak. Euskera batua eta pertsona liberatu baten beharrezana aipatu ziren batipat. Euskera batuaren alderako tendentzia nagusitu zan, haurrei noiz eta zelan irakatsi zutik gelditzen zalarik; eta pertsona liberatu bat hautatzeko, beste batzar naguslago bat egitea erabaki eben.

Bigarren batzarra Zornotzan egin zan, irailaren 22-an. Hirurogei ta bederatzai maisu elkartu eta hauteskundeak egin ondoren, Imanol Gaztañagak, euskera batuaren alderakoak, 46 boto jaso zituan; honetara, beste barik, maisuen arteko liberatu bezala gelditzen da urte beterako. Bere laguntzaile legez, Maria Anjeles Izpizua eta Itziar Barrenetxea hautatu ziren, biok euskera batuaren alderako jokera moderadukoak.

Ikastoletako haurren gurasoekin aldi aldi elkarrizketa batzuk egiteko ordezkari bezala, Juan Felix Elorrieta eta Itziar Barrenetxea hautatu ziren.

## FENOMENOLOGIAREN LAGUNTZAZ, ABSTRAKTO BIDEAN

Abstraktoaren bidea somatzen, Kubismoarekin hasi zela esan dezakegu. Arte errepresentatibotik errepresentazio gabekora (eta «no figurativo»-ra) egin zen saltoa, pauso gabekoa izan zela ezin genezake inolaz ere onar\*.

Pinturaren historian sakonduz, klarki dakusagu\*, erreazio inportanteena, estetika hutsetik alde nahi izatea izan zela; emakumearen formak okertu eta itsusituz batez ere, forma hoiak baitziren\* kuadroak gehienetan atsegin bihurtzeko gairik errazena. «Espresionismoaren» mementoa\* da. Geroxeago, egikera honen sintesia eta sinplifikazioa etorri zen, kuadroak eskema hutsetan bihurtuz. Picassok, gauzak eta batez ere izakiak kuadrotik alden-du behar zirela zioen\*; muinezko sintesia lortu behar zela eta ez noski\* formazko sintesia. Fenomenoetatik (sensible hutsetik) alde egin nahiez bada, Kubismoa eratzen da mugimendu bezala, trantsiziozko mugimendu bezala. Abstraktoaren erroak hemen aurkitzen ditugu, oraindik nahiko primarioak noski.

Abstraktoari, berez, ez zaio interesgarri zer errerepresentatzen duen, baizik eta nola errerepresentatzen duen eta nolako autonomiarekin. Silogismo hau bukatzen\* badugu, ezin genezake esan, abstraktoak ez duela ezer errerepresentatzen (kirtenkeria lizateke). Baina objeto hori (kuadroaren muina) gugandik hain urrun dagoe-larik eta gehienetan hain ikus ezina delarik, kuadroa (eskultura..., arte produktoa, hitz batean) autonomia gehiagor indartzen da, ez baitugu\* konparaziorako elementurik. Izan ere, indarra, balorea, esannahia, aberastasuna... osorik (subjektiboki noski\*) lanaren limiteetan gelditzen da; eta geure sentiduak (ikusmena, entzumen...) limite hoietatik kanpo ezartzen baditugu, edota kuadroa geure ideiekin eta esperientziekin erlazionatzen badugu, kuadroak berez duen balore esentzial eta autonomoa zapalduta geldituko da. ta garrantzitsuena dena: galdu egingo dugu kuadroaren kontzientzia.

Bretano sikologoak dioenez, fenomeno sikikoak errerepresentazioak dira edo errerepresentazioak dituzte berekin. Bestalde, Edmund Husserl-ek, Bretanoren ikasleak, «Fenomenologia» eratu zuenak, zientzia positiboan objektuei aurkeztu egiten dizkiele mundua osotzen dituzten objeto idealak, «objetos que sólo pueden ser

captados mediante una intuición categorial».

Bretanoren definizioaz baliatuz, esan dezakegu, fenomeno sikikoek errerepresentazioak dituztela berekin; baina, Husserl-ek dioenez, «kategoriazko intuizio baten bidez kaptatuak».

Beraz\*, Husserl-ek dioenez, «gauza» berez lortzeko «intuizio esentzialera» jo beharra dago. Horretarako lehenengo pausoak (reducción fenomenológica) hauek dira: Zuhaitz bat begiratzean, ez dut esango, zuhaitz hori nik dakusadana\* denik, baizik eta bi-bentzia bat dadukadala. Baina zuhaitz hori, nota batzuek osoturik dago: haundia, zuzena, zabal...; beraz\*, beste laburketa (eidetika) batez baliatu behar naiz, bibentzia horrek esentziaren kaptazioa eraman\* nazan, Zuhaitz Idealera alegia\*.

Hausnar\* dezagun, bada, Husserl-ek esandakoa. Beraz\*, zuhaitzaren muin idealaren eta errerepresentazioaren artean diferentzia bat dago, eta, nola ez, bide bat. Beste esanplu batez baliatuz eta artikularen izenburuak diogen bezala, abstrakto bidean (oso konkretua izan arren, abstrakto hitza erabiltzen dugu normalki), kuadro baten mugak errerepresentazioa eta muin ideala izango lirateke; eta, bi muga hoiene arteko bidetik at\*, erlaziorik aurkitu nahi izan gabe eta beraren desarrollo autonomoaz baliatuz gero, errazago hurbil\* gintezke ezaguna ez dugun mugara eta muinera.

Argi dakusagu\*, beraz, Fenomenologiak abstraktoaren ulertzea erraztu duela; eta Husserl-ek, gaurko pentsalaria ez bada ere, tendentzia honetan pauso inportanteak eman zituela; eta haren teoriarik askotan baliatzen gara.

MIKEL MENDIZABAL

## BOTERETSUEN ESKUETAN DAGOEN BOTERE BAT

Nork uka, egun\* publizidadeak dadukan boterea? Bai, ba daki-gu zein den haren eginkizuna: produzitzen diren zenbait\* gai eros-learentzat «beharrezkoak» bezala ager araztea; baina ba du beste eginkizunik ere.

Gauza jakina da, Estatu Batuetako elezioetan publizidadeak jokatzen duen funtzioa; asko hitz egin da horretaz, batez ere azken bolada\* honetan. 1950-ean «New York World Telegram» aldizkariak adierazi zuenez, kandidatuek propaganda teknika zorrotzenak erabiltzen zituzten beren kanpainen. 1950-etik hona gauzak aldatu badira, eta aldatu dira noski\*, aldaketa hau publizidadearen desarrolloarako izan da; eta honela gaur Estatu Batuetan publizidade agentzia batek, agentzia indartsu batek noski, presidente bat sor arazten du. Diotenez, Humphrey kandidatua agentzia indartsu bat ukan\* ez zuelako irabazi zuen Nixonek, 1968-ko elezioetan.

Baina, egia esan, nola onar\*, publizidadeak duen botere hori berez duela? Orain aztertzen ari\* garen publizidadea historiaren haro batean sortu da, eta maneiatzen duenaren tresna bat beste-rik ez da. 1968-ko elezioetara bueltaturik, honen esanplu bat ager-tzen zaigu. Humphreyk eta demokratek, zortzi miloi dolar gastatzeko prest egonik ere, nahiko problema ukan\* zuten, agentzia on bat aurkitzeko. Nixonek eta errepublikanoek, ordea\*, aukeratze problema bakarra ukan zuten, agentziarik gehienak haien eskuetan baitzeuden. Gertaera honen esplikazioa zera da: publizidade agentz-ien monopolioetatik datorkie lana, eta hoietatik gehienak erre-publikanoen eskuetan zeuden. Gero ere, ba da bazter\* ez deza-kegun beste arazo nagusi bat. Monopolioek agentzien bidez eman-dako «faboreak» zerbaiten truke ematen dira (desgrabazio fiska-lak, eta abar); eta fabore hauek pagatzeko errepublikanoak prest zeuden. Demokratek ere prest zeuden noski; baina segurantzak, eta honexek bakarrik, kontseilatzen zuen errepublikanoel la-guntzea.

Publizidadeak, halaz ere, ez du goi politikan bakarrik jokatzeko; ba du beste parte bat ere. Parte honen eginkizuna, sistimaren ideologia mantentzea da; ta, nahiz era desbardinez azaldu eta sar-ritan ondo ezkatututa etorri ere, sistimaren birtuteak gorensten dituen publizidade horri propaganda deritza. Estatu Batuetan tek-nikarik aurreratuenak daude zientziaren zibernetikan, sikologian eta harmagintzan. Zibernetika, produzioa gehitzeko desarrolloatzen da; harmen industria, ekonomiaren indarra mantentzeko. Bai, hau gauza jakina da; baina sikologia, zertarako sikologia?

Tristeza bada ere, hain Intentzio nobleak ukan zituen zientzia ez da gaur kapitalaren morroi bat baizik. Afirmazio honek gogorregia dirudi; baina egun\* sikologiak gizonaren frustrazioak eta beharrak aztertzen dituenean, ez da gero gizonak frustrazio eta behar hauek gaindi\* ditzan, behar faltsuak, errealidadetik at\* dau-den «egiak» sor arazteko baizik.

Sakona da gal hau, bai; baina, adibidez, nork sinets\*, «James Bond» edo «Topaz»-en tankerako\* filmeen atzetik ezer ez dagoe-la, filme hauek jendeak ondo pasa dezan bakarrik direla eginak?

ANTON SANTAMARIA

### EUSKAL HERRITIK GAZTELA HERRIRAKO AUTOBIDEA

Bilbotik Behobiara egiten ari diran autobidetitik asi ta Gaztela Herrirakin lotzeko, hiru tokitatik proposatzen da: Basaurin asi ta Altubetik. Maltzagan asi ta Gasteiztik. Eta Durangon asi ta Urkiolatik. «Obras Publicas»-ako Minis-troak esan dau, ostera, bide bat autatu behar dala. Ez dau esan zein den egokiena. «Abadiñotik (Urkiola az-pitik), Gazteiztik da biderik egokiena» esan deusku J. L. Lizundia, euskal jeografuak.

# OFIZIALTASUNA

Euskerarentzako berri ona. Euskeraren batasuna egiten ari da.

Marmar asko ibili arren, funtsean euskaltzale denok akort gaude arazo honetan. Euskerari, hizkuntza bizia izateko, behar beharrezkoa zaio euskalkiak bateratzea. Kulturazko hizkuntza guztiek egina dadukatena, geurean orain ari gara egiten. Azkenean, belaunaldi honek lortuko du euskaltzale askoren ametsa: Hizkuntza ofizial bat. Ohore handi hori geuri tokatu zaigu.

Bildurti batzuek atxakia mordo bat atera dute karrikara. Nola ikasiko dute umeek etxean hitz egiten ez den euskera? Umeel trauma izugarria egingo diegula eta horrelako ximplekeriak maiz entzuten ditugu. Zer erdera ikasten dute, bada, erdaldun umeek? Etxean hitz egiten zaiona? Bai zera! Eskoletan irakasten dena, besterik ez. Zergatik? Erdal Akademikak erdera hori era horretara idatzi behar dela ofizialki hautatu duela. Gero etxean etxekokeriak erabiliko dituzte noski, baina idazterakoan eskolan ikastakoa berez irtetzen zaie erdaldunei. Ofizialtasunaren indarra denok dakigu edo jakin behar genuke behintzat.

Beste aldetik, zer gertatzen da gaurdaino egindako Liturgiako euskerarekin? Mondragoeko elizetan, esate baterako, Gipuzkoako Beterriko euskera erabiltzen da; eta, hango euskalkia bizkalera izan arren, gipuzkera hutsez egiten da Mondragoeko elizetan, Liturgiako batzordeak Gipuzkoa osorako gipuzkera hori ofizialki onetsi duela.

Eta hona hemen nere galdera: Ez ote da komenigarriago Euskal Herri osoan ofizialki euskera hartzea, euskalkiak baino?

Euskaltzaleentzat ez dago zalantzarik. Euskera nahilago dugu euskalkiak baino. Batasuna nola egin, Euskaltzaindiko teknikoei esango dakute. Guk dioguna hau da: Euskera bizl dadila nahl dugula. Euskaltasuna euskeraren bidez datorkigu ta.

ARABARRA

# KOMENTARIO LABUR BAT

Eratu ados gaude, «Hauteskundearen ondoren Britainia Handia betiko giro opelean» izenburuko artikuluan Iza jaunak azaldu daukunarekin. Egia besterik ez du esaten. Europako egungo egoera ederki ezagutzen du Izak. Jakina da, Wilsonen politikak, Laborista alderdiarenak alegia, ez duela inor betetzen, ezta Willy Brandten eta bere aderdiarenak ere; zeren eta sozialismoaren izenean (gizona askatzeko bide bakarraren izenean) alderdi baten interesel besterik ez baitzaizkie jarraitzen. Sozialismoa, orain esan dudana legez, ez da ene eritziz bide bat, urrats bat aurrera baizik. Nehor ez beza pentsa, sozialismoarekin mundua osoro konponduko denik. Ez dugu horrelakorik esan nahi. Sozialismoak, kapitalismoari darraikion sistema ekonomiku bat denez, ez du gizartearen akats guztiak ezereztuko. Halaber, gizartearen mende mende sortu izan diren sistemek.

Beraz, ez dezagun sozialismoa helburu bakar eta betikotzat har, dogmatismoan eta sinplekerian erortzea lizateke ta. Har dezagun giza-eboluzioaren beharrezko den pauso bat legez, ez itsu itsuan, baizik eta gizonaren askatasuna lortzeko, ekonomia eta politikazko opresioa puskatzeko biderik egokiena zailgailako.

Izaren azalpenari jarraiki nahi berriz. Tradizioz sozialismoaren eredu izan den URSS-eko sistema txit egoki ta laburki kritikatu du; baina ene aldetik zertxobait aipatu nahi nuke: zirkulu hertsil batean mugitzen garena. Rusoak stalinismoaren ondoren desestalinizazioz mintzatu zitzaizkigun, eta azkenean berriz stalinizazioa itzuli dira. Zer adierazten dauku gorabehera honek? Zalantzarik gabe, stalinismoa sorrarazi zuten motiboek orain ere berdintsu diratela. Objektiboki begiraturaz, errudun nagusienak ez dira URSS-eko errepublikak, proletargoaren diktadura partidu baten diktadura bilakarazi zutenak baizik. Latza ta garratza benera gertaera hau, baina egia eta uka ezinezkoa. Horregatik kontuz sasi-sozialismo hauetaz eta beren hitz politetaz, gure eginkizuna ez baitago hitzetan, praxia dela medio, gizaki BERRIA, ASKATUA lortzean baizik. Helburu honi, ez munduko aurrera-zaleek ez eta Euskal Herrikoek ere ez diote utziko.

IGARTUA

# EUSKAL ALDIZKARIEK DINO

## EUSKAL EKONOMIAZ

Orain arte Industriaren oldar horrek izan duen traba handiena zen ekonomia-aren azpiduren ahulezia (erregebidet, telefono eta abar). Hemendik bost urteren buruko kanbiatuko dute hau ere.

1975-eko, Bilbotik hasi eta Behobiaraino autobide zabal eder batean jiten ahalko da oren batez. Agian orduko bururatua izanen da Behobiatik Balonarat helduko dena. Hala oren bat eta hogel minutuz sartzen ahalko da Baionatik Bilborat.

1972-ko maiatzeko, petrolio iraztegi handi bat eraikiko dute Bilboko portuan. Urtero 5 milioi tona petrolio pasatuko dira hortik.

Hirugarrenik, Bilboko portua bera azkarki zabalduko dute. 238 hektarea eta 11 km. kaia izanen ditu. Hastean 120.000 tonako eta geroxago 500.000 tonako untiak sartzen ahalko dira hor.

Oraino ez da egiten 500.000 tonako untiarik, baina laster helduko dira handitasun ikaragarri horretarat eta orduan Bilbon ere izanen dute kaia bat. Rotterdam, Holandako portua baita munduko lehena egun, diote Bilbo ere Rotterdamen heinerat helduko dela.

«Banco de Bilbao»-ko mintzatzalleak gauza hauk presentatu ondoan, zion euskal Industriak ongi ihardukitzen ahal zuela akordio horren ondorioel.

(R. CAMBLONG, «Herria», irailaren 10-ekoa)

## ERA ASKOTARA

Dana dala eta egle esan, nik ere uste dut gaur egiten ari dan euskera batuaren aurkakoak ez dutela ezer eskelil, orain arte beintzat. Eta eskelil bear dute. Bestela erriak alde bat bakarrik ezagutuko du eta, noski, orl aukeratuko bearko.

(ZARRAOATAR IÑAKI, «Agur», abuztukoa)

## EUSKALTZAINDIAREN OHARRA

«Lema Euskaltzaindiaren eskuetan dago, Inorenetan egotekotan, eta Euskaltzaindiaren eskuetan egon behar luke, nik uste, aurrera ere, horretarako sortua dugulako», dio Mitxelena jaunak.

Ortan gaude gu ere. Orregatik eskatzen diegu, bal irakurle eta bal idazleel, jarrai dezaletela, Z. Argian beintzat, Euskaltzaindiaren erabaki auel.

(«ZERUKO ARGIA», irailaren 6-koa)

## BATASUNARI BURUZ SOLASAK

Bestalde, Euskaltzaindia sortu zelarik, orduko helbururik nagusia batasuna zen. Orduan hasi ziren horri buruz lanak agertzen, eta zenbait gauzatan asko aintzinatu zen. Altube, Campion, Broussain eta abar zirenetik hasi eta, egungo Arantzazuko bilzarretaraino, ba dugu non ikas.

Ez dezagun pentsa, beraz, gu lehen urratsak ematen ari garenik. Gertatzen dena da, egun batasun hori geroago eta premiatsuago senditzen dugula; eta horregatik nahl gurekela supituki erdietsi, denbora eta lanarekin ez bada, lortzen ahal ez dena. Asko aldiz, burukomin eta buruaste guztiak kendu ahal lezakten sendagailua, gautetik golzera gure esku eduki dezakegula uste baitugu: euskera batua, bere neurri eta muga guztiekin osatuko litzaken «urrezko giltza» alegia.

(ANKO SENDOA, «Príncipe de Viana», uztail-abuztukoa)

Sei ta zazpigarren orrialdeotan agertzen diren zenbait aditz forma, bizkalera adierazlak.

beza, bel.  
dadukate, dauke.  
daude, dagoz.  
dauku, deusku.  
deritza, deritxo.  
dezagun, daigun.  
diegu, deutsegu.  
diote, deutsoe.  
ditzan, daizan.  
dizkie, deutsez.

gaude, gagoz.  
genezake, gelinke.  
gintezke, gelintezke.  
nazan, naian.  
zaie, jake.  
zaigu, jaku.  
zaio, jake.  
zeuden, egozen.  
zitzazkign, jakuzen.

# BATASUNAREN KUTXA

Konplimenturik batere gabe esanda, izugarrizko lan txaloga-  
rria jasotzen da liburu honetan, euskeraren etorkizunerako jada-  
nik nahitaez gogoan eduki beharko dena. Aldez aurretik eta itsu-  
ki joera horretako edozein lan ukatzera erabakita dagoenak baka-  
rrik arbuatuko du axolagabeki. Hitzaurre gisako «Kutxaren Gil-  
tzarien ohar» laburraren ondoren, euskera bateratuaren aldeko  
«Baionako zina» ta mezua dator, 63 idazle sinatzailek izenpetu-  
ta. Izenen eta izen-ordekoen deklinazioaren paradigma batekin  
bukutzen da atal hau. Bigarren atalean aditz laguntzailearen adiz-  
tegia ta euskal aditzazko estudio bat eskaintzen zaizkigu, zen-  
bait aditzen konjugazio sinplearen txosten batekin. Orrialde 93-  
-239 lehen euskal hiztegi bateratua dadukagu, esannahia euskeraz  
adierazitako 5.810 hitzekin. Esku bateko txaloa liburuari ta liburu-  
a zor dlegun Gabriel Aresti ta Xabier Kintanari. Biba zuek eta zuen  
liburuak!

Baina permti blezadate Autore blok eta Irakurtzalleek liburu-  
ari ohar batzuk egiteko atrebentzia; eta ez goitik behera, ezta erri-  
bera kontrariotik edo animo etsalez ere, liburuak berak eta Au-  
toreek sortzen daudaten begirune guztiaren barnetik baino.

Euskeraren bateragintzan dabilen nahasmendu objetibu ta su-  
jetibuen lispilu bezala agiri da liburuak. Euskera zeharo ezberdina,  
aurrenik: esaterako, hiztegi azalpenetan eta «euskal aditzazko  
estudioan» (or. 73 ta hur.). Azkeneko honetan behintzat, oso pe-  
dagogiazkoa ez deritzagun «esaeren kulteranismo» arrotza ta go-  
gorra nabari da. Honelako asko dago: «Eta konjugazio sinplerik  
ez dutenak, hau da gure aditz gehientasun nagusia, sistima kon-  
posatuan konjugatzeko dira» (or. 73). Bakan hartuta zer tatxatu-  
rik ez lukeen esaldi-modu askok, gehiegi erabiliz gero, arrotza ta  
naturaltasunik gabekoa bihurtzen du idazkia.

Terminologia edo gramatika-gauzen izenez: elkarturik ez beste  
guztia gaude! Urteak ibili zen Fernando Mendizabal pedagogiari  
dagokion gramatikazko terminologia erraz bat sortzen; eta Lafittek  
«barneko argiz arras» gogokoak kausitu zituen bai haren termi-  
nologia ta bai sistimagingintza. KUTXAK ez dio egindako lan horri  
batere begiratu, ez bere sistimagingintzan eta ez terminologian. De-  
klinazio-kasuen izenetan, adibidez:

aktibo (K.)	egillea (F.M.)
inesibo (K.)	nuna (F.M.)
elatibo (K.)	nundikoa (F.M.)
alatibo (K.)	norakoa (F.M.)

Fernandok «toki-deklinazioa» jarritako lekuan «lekuzkoa» esaten  
dauku KUTXAK. Eta abar, eta abar.

Berdin aditzarekin ere: «Iragan etorkizuna» (?) hobe al dago  
«futura zaharra» baino, **sartuko nintzen** forma adierazteko? Ta ez da  
terminologiaren gorabehera bakarrik, zehaztasunarena ere baizik:  
**sartzen nintzen** presente perfeta dela irakurrita, Lafittek **sartua nin-**  
**tzen**-i emango llokeela izen hori iruditzen zaigu, ezerl ematekotan,  
harl behintzat ez. Orobat, gertatua ta gertatzekoa omen dira  
aditzaren bi **gradoak**; baina inola ere ez dira gauza bera, Lafittek,  
adibidez, «potentiel» (kondiziopeko potentziala) deritzana ta «ger-  
tatzekoa»: sekula ez gertatzekoa ere sartu behar baitira «gerta-  
tzeko» horren barranean. (Adibidez: atzo etorri balitz aita, etxean  
ikusiz izango zukeen Andoni, «gertatzekoa» al da?) Zehaztasunaren  
falta berdina izen-deklinazioan ere: **bitartezkoak** ez ditu zertazkoa  
(: zertaz mintzatu da?) ta zerezkoa (: zerez dago etxea eraikita?)  
bereizten; eta ez dirudi ezinbestekoa biok nahasturik erabiltzeak,  
batzuetan bion atzizkiak berdin-edo entzun arren. Eta abar, eta  
abar. Terminologia fijo bat sortzekotan, ez luke kalterik ekarriko  
jadanik egindakoaren ardura gehixeagok; edo-ta argitasunen bat  
emateak, lehengo onartu nahi ez bada. Ezen-eta, euskalzalea La-  
fitteren Gramatikarekin eta orain Fernandorenarekin (bi mila ale-  
tatik gora jadanik euskaldunen eskuetan) lan egiten ohi-tuta baita-  
go, argitasun xipi batek asko lagunduko lioke nahasterik ez sor-  
tzen.

Tamalez, argitasun gutrekin ta gutiago arrazonatuta aurkitzen  
dugu zenbait erabaki ta puntu. BAIT aurrizkia aditzarekin lotu  
egin bada (bakara, eta abar), zergatik ez da berdin egin EZ hitz  
librearekin? «Mitxelenaren eritzia entzunda gero» egin omen da  
hori; baina gehienok entzun edo irakurri ahal izandako haren eri-  
tzia bestelakoa zen orain arte bederik, eta ez dakigu zer misterio  
eskatzen duen «entzunda gero» zuhur horrek. «Irakurlea liburuaz  
ondo balia dadin» beharrezko izateak sortarazi omen du **aditz la-**  
**guntzailearen adiztegia** KUTXAN; baina hori ere ez da arrazonatzen,  
BATASUNAREN KUTXA bategandik itxaron ditekeenez. Eskuetan  
batasunaren ez baina politika pertsonalaren kutxa dadukagun sus-  
moa birrintzeko ere. «Mitxelenaren promesa» zeren garantia du-  
gunik ere ez zaigu argitzen, «begirada bat eman» izana, jaun ho-  
rrena izanez gero, beste gabe aski ez baldin bada behintzat.

Hiztegia iruditzen zaigu liburuak lanik galantena. Baina hemen  
ere ez da zer ohartarazi ta galdeturik falta. Grekotik edo lati-  
netik eraturako hitzak O bukaerarekin (**fantasioso, telefono, teo-**  
**logo**) ala U amaituaz erabili behar dira euskera bateratuan (**artiku-**  
**lu, errespetu, estrainu**)? Orobat **hipnosi**, baina **tuberculosis** (ese-  
rekin), **tesis**, eta abar. **Aeroplano** ordez **aireplanua** erabilia dago,  
zenbaitik ez badakit ere, eta Gipuzkoan behintzat entzuten zen  
(Gipuzkoa aipatzeak oraindik balio badu), ta **aeroporturen** antzean  
onargarria ez ote den galde liteke (edo-ta, **aireportu**). Erizpide  
zabalez dago, bestela, hiztegia. «Garbikeriari» ere ez dio aterik  
erabat hertsik: **jopu, Euzkadi, laterri**, etc. Baina **handi, txiki** (?),  
**gutxi**, ez dira hiztegi honetan batere agiri (Mitxelenaren izenare-  
kin zabalduko lehenengoan bai). Hiztegiaren **sistima** dago, baina  
azalpenetan sarri aurkitzen da sistema. **atizkia** ez da de-  
klinazioan aipatzen, baina hiztegi azalpenetan maiz agiri da  
(adibidez: «**Aristokrata**... familia printzipaletarik sortua»). **Hertsik**-  
ren adierazpenerako **itxi** irakurtzen da, baina hitz hau ez da hiz-  
tegiaren sartu (lehenengoan bai). Espilu hiztegiaren, baina **ispilu** azal-  
penetan. **Gaixo** hiztegiaren, **geixo** azalpenetan. **Inprimatu** hiztegiaren,  
liburuaren lehen orrian **inprentatu**, eta abar, eta abar. Zenbait  
adierazpen zuzena edo osoa al den duda ere gelditzen da: **kon-**  
**formidade**, nire ustez, beste esannahi hauetan ere erabiltzen da:  
1) **etsipen**, 2) **proporzio**. **Maixeatu**, ez al da murmurka ibili edo  
kritikatu, ta azterkatu ere? **Gaitza**, gaixotasuna ere ba da. **Isla**,  
ez uharte bakarrik. **Aingeru, sozialismo, kapital, kapitalismo, ko-**  
**munismo, ideologia, gorbata**, etc. esplikazio bitxitxoekin aurki-  
tzen ditugu. **Burjesia, exenplu**, baina **intsektu**: euskera bateratu-  
ko ortografian noraino obligatzen du hiztegiak? **Fraille, bedei(n)**  
**katu, argudio, katigu**, etc. uztea hobe?

Hauk ez dira handik eta hemendik bildutako **exenplu** batzuk  
besterik.

Euskera bateratuaren hauzia alderdi biren frentetan banatuta  
dabilen giro zikinduan, ez da agian faltako, liburu hau haserre-  
tuta oso-osorik kondentatuko duenik. Beste batzuen deboziorik ere  
ez zaio faltako. Liburuak berak, hala ere, ez dirudi sesioa ta dibi-  
sioa sortzeko egindakoa. Eta azal barruan irakurtzen denez: Hau ez  
da liburu bat. Hau liburu baten hazia da. Denborarekin, eta hazi  
hau lur onean ereiten baldin bada, arbola umo eta tanta bat  
izatera allegatuko da. Edozein uskeriagatik elkar-joka ibili gabe,  
derrigor geure frontea babestu nahita, hobe izango genuke testu  
batetan oinarritu ta gure premiak eta ahaltasunak azterkatu. Li-  
buru honek oinarri zabala ematen dauku eginkizun horretarako.  
Liburuaren kritika honekin, liburuak lagundu nahi dion obra bera-  
ri lagundu nahi genioke. Eta liburuaren kausaz arduratzen garen  
guztiok, grinarik eta hertsikeriarik gabe, liburuak hobetzen sala-  
tzen bagara, liburuaren gauza hobetuko da azkenean: euskeraren  
eta euskaldunen batasuna. Azterketa hau eginaz, liburu honen az-  
terketak egiteko premia azaldu nahi izan dugu: liburuari, liburu-  
aren gauzari ta idazleei horixe zor zaielakoan.

JOSE AZURMENDI

Alemanian, 1970. Iraila.



# GASTEIZEN AURRERAPENA

Arabako lautadaren\* erdian aurkitzen da Gasteiz. Arabako hiri\* nagusia da, denok dakigunez. Azken urteotan gehitze haundia ukan\* du, 1953. urtean 56.000 bizilagun zituen, eta aurretian 145.000. Gehitze honekin, gasteiztar gizarte zaharreko oinarriak kraskatzen hasi dira. Gasteiztar gizarte, bere barruko estrukturan, aldaketa gogorak sentitzen ari\* da.

Lehen, gure gizarte jauntxoaren gizarte zen. Funtzionariorien, militarren, errentadunen eta apaizen gizarte. Batzuetan, haien artean eztabaidak sortzen ziren, nahiz Unibersidadea zela, nahiz elezioak zirela (gerra aurrean), nahiz urlia\* monumentua beste leku batera aldatu behar zela, eta abar. Baina egiazko orduan denak elkartzten ziren. Haien osotzen zuten gure hiriko giza-klase nagusia, eta haien legeek zuzentzen zuten hiriko bizitza guztia. Haro\* feudaleko hondarrak ziren.

Bitartean, Bizkaian eta gero Gipuzkoan, goi-mailako gizonen erreboluzio industrialia egiten zuten. Probintzia hauetan, Bizkaian batez ere klase nagusiaren eta langileen artean pixkana pixkana erdiko giza-maila bat sortzen da. Erdiko klase honen, gure kondairaren antzerkian, toki garrantzitsua beteko du, baina beti kontradizio ta eztabaida haundiren artean ibiliz. Horrela Euskal Herria bi zatitan puskatuta agertzen zaigu: bata industrializatua, bestea nekazaritzan diharduena.

Gasteiz bigarren zati honen barruan aurkitzen zen, lehen ikusi dugunez. Gasteiztar gizartearen eraketa ta biziera, nekazari gizartearena ziren.

Orain hamabost urte, guti gora-behera, hasten da Gasteizen industrializatzea. Zergatik hori? Lehendabizikoz, Euskal Herriko beste herrietan lantegi berriak eraikitze lekurik ez zegoelako, Eibarren adibidez. Gasteizko Udalak\*, gainera, ondo jakin zuen abagaduneaz\* baliatzen. Estaduak "polos de promoción" hoik sorrarazi aurreko urteak ziren. Gertaera honen, Euskal Herriaren aldetik, garrantzi haundia ukan\* du, diruaren ihespide\* berri bat galerazi duelako.

Beste aldetik, hirigintza\* egoki baten bidez, erraztasun haundiak ematen ziren, bai lekua aukeratzeko, bai ura ekartzeko, eta bar. Arabako Diputazioak ere gutitu egiten zizkien lantegi berriei lehen urteetako zergak\*. Horrela, industrializazioaren eskutik, Gasteiz poliki poliki haundituz joan da.

Bat batean, gasteiztar gizartearen harremanak aldatuz joan dira, eta burges xipi\* klase bat agertzen da. Giza-maila hau, lehengoa baino bizkorragoa, trebeagoa ta jakintsuagoa izanik, hiriko indar eragilea izatera helduko da nonbait, Jakina, aldaketa hauek gure gizartearen barruan atezuak\* dakartzate, bai gehienetan aurrerapenaren alderako izaten dira.

EZKIBEL

## ABESLARIENTZAT

Dakizuenek, abestuteko beharrezkoa da Karnet Sindikala eukitea.

Datorren urrian, Bilbon, Bizkaikoentzat, esaminak izango dira, Karnet hori lortu nahi dabeneztat. Orain hasi eta irailaren\* azkenerarte presenta leitekez instantziak, esamina horreetan parte hartzeko.

Informaziorako joan Sindikatora (Sindicato del Espectáculo - Ercilla, 27, 4.º), edo idatzi ANAITASUNA-ra, eta geuk bidalduko deusueguz bete behar diren paper guztiak eta gainerako informazio osoa.

# ANAITASUNA- REN LEHEN INKESTA

194. alean egin genduan inkestari erantzunez, hainbat irakurleek bidaldu deuskuez euren eritziak. Uste dogu, oraindik gehiago ere berdin egitekotan izango zareela. Oso komenigarria da guztiontzat, inkestaren erantzunak ahalik ugarien izatea. Urriaren 15-ean aterako ditugu erantzuleen eritzi guztiak. Mesedez, ba, bidaldu zuen erantzunak. Mila esker!

## DISKA BERRIAK

CINSA diskoetxearen kanta berriak. Laster batean agertuko dira KANTARI:

1. Oinarriak
2. Urretxindorrek
3. Argoitia nebarrebak
4. Artetxe zortzikotea

## ADIZTEGIA

(Zortzi ta bederatzigarren orrialdeotan agertzen diren zenbait aditz forma, blzkaleraz adierazlak)

biezadate, beiste.

dautate, deuste.  
deritza, deritxo.  
deritzagu, deritxogu, deritxagu.  
dakartzate, dakarrez.  
dauku, deusku.  
dezagun, daigun.  
diegu, deutsegu.  
dio, deutso.

gaude, gagoz.  
genioke, geunskio.

lioke, leuskio.  
liteke, leiteke.

zaie, jake.  
zaigu, jaku.  
zaio, jako.  
zaizkigu, jakuz.  
zitekeen, eiteken.  
zizkien, eutsezan.  
zukeen, euken.

## EIBAR

### Azitain eta Heybar

Artez nahiz antzinatasunez ba dauka Azitaingo ermita zaharrak edozenbat\* balio eta bakantasun. Eta, presbiterioan edonork irakurri ahal dauanez, Eibarko herria ei da aberastasun guzti horren jaun eta jabe. Begira bestela zer dinoan horman: «Esta ermita de la Asunción de Nuestra Señora de Azitain es una de las que tiene la villa de Heybar en su jurisdicción, cuyo dueño y patrón es la misma villa».

### Klub Deportiboa

Eibarko Klub Deportiboa oraintsu egiteko berriei lotua da, itsasoari dagokiozen egitekoei hain zuzen. Hiru talde berri eratu ditu. Honexeei dira: Eskafandrak, Igerlariak\* eta Itsaspeko Arrantzaleak.

Gure aurrekoek aukera honeek hartu izan balitue! Izan ere, debora batean, egiteko horreek Sallabentzen nahiz Ariatzako presan egin eitekezan. Gaur egun, ostera\*, erreka behera, apurtxo bat urrunago joan behar izango dabe.

### Filatelia

Oporketak\* amaitu ondoren, bildu\* berriak ei dira Arraten selo sorta zaleak. Ez genkian guk, filatelia zaleei hogeit eguneko oporketarik tokatzen jakenik. Beharbada, ez deritxoe euren buruari «siderometalurgikoei» baino gutxiago. Itxura danez, guk uste genduan baino aurreratuago dago lan erregimentazioa.

Dana dala, bakoitza lotu bekio laket\* dauan arazoari.

### «Haur besoetakoa»

Horreoz hartu eta gau berean irakurria dogu Jon Miranderen «Haur besoetakoa» deritxon ipuina.

Lehenengo orrian, ipuina hasi aurretik, Jon Mirande ez dan baten batek idatzitako eskari bat ere irakurri dogu. Honela dino: «Otoi, liburu hau haur\* listoen eta gizon tontoen eskuetatik urrutu gorde bedi».

Bildur gara ez ote dan osterantzekorik Euskal Herrian.

### Mendigoizale bat

Ba da mendizalerik ugari gure herrian. Mendizale ezezik, mendigoizale prestu eta amorratuak ere ez ditugu gutxi.

Azken honeetarik bat Eleuterio Muruamendiaraz dogu, maki-natxo bat aldiz eta edozenbat\* lekutan omendatua\*, oraintsu Urre-txuan hain zuzen.

Horrez gainera, «Mérito Deportivo» dalako horri dagokion irudia irabazia dau gure Eleuteriok. Zorionik beroenak berari.

Mendizale gazteek ba dauke, bai, kementsu jarduten non ikasi.

ALBISTARIAK

## ZORNOTZA

### Berriro ere koroearen inguruan

Ahotan larregi darabilgula uste izan arren, Larrako Aita Prioreak ANAITASUNA-ren 195. zenbakian dinoskuzen hitzek berriro ere aipatu erazi egiten deuskue arazo hau. Hona hemen haren hitzak: «Koroa ez da Karmeldarrena, Ama Birjina koroatzeko zerbait eman eben kristau guztiena baino. Guzti horreen asmoak eta gogoa, errespetagarriak eta haintzat euki beharrekoak dira».

«Asmoa eta gogoa» errespetatzera garoazenez gero, zergatik ez lehiatu lur mamintsu hau leiatzen?

«Zerbait emate» hori dala ta, burura lehenen datorkiguna, tamalez sarritan, elizteilepeko karidade ta lismosnakaz jazo\* ohi dana da: ez ote daroe langileriarl ateratako izerdia? Ezelan ere ez dinogu, horregaitino\*, koroe honegaz holangorik jazo izan danik. Jo daigun, bakoitzak eman eban diru hori bere berea ebla.

Baina Ama Birjina geurea da, eta guztiona dana ezin leikee batzuek monopolizatu. Eurakandu ezeze, euren aldera aldatu ere ez. Guztiontzat izan behar da bera izan zana: Nazaretoko langile baten emaztea. Eta emakume hau herrian diren urre, harri bitxi ta zidarrez betetzen badogu, ez ote dogu dirudunen lagun bakarrik egiten?

Gure asmoak eta gogoa ere errespetagarriak eta haintzat hartzekoak izan leitezen nahi geunke.

BARRESKI

## GERNIKA

### Umeen Euskal Jaia

Alaitasuna ta poza umeengan eta bal gurasoengan izan zan Gernikan, irailaren\* 20-an, Umeen Euskal Jaia egin zanean. Mila ume inguru elkartu ziren: guztiak dantzariak, edo txistulariak, eta abar. Goizean, talde guztien erakusketa egin zan herriko plazan. Arratsaldean, lehenengoz hiru tokitan banandu ziren, azkenean berriro guztiak plazan elkartzeko. Han izan ziren Ondarroako «Kresala» taldea, Irune Argoitia zuzendaria zala: Bermeoko «Herriko Lagunak» (zoragarria benetan, danbolin-txistuak hartzen dauan indarra, ume honeek berarekin zaletuaz); Markinako «Zerutxu» taldea..., eta beste hainbat talde Hego Euskal Herri guztitik etorriak. Ikusgarriak benetan, gurasoek, euren umeei begira, poza-rran egindako negar malkoak. Alpagarria, gernikar familiek ume honeei bazkaria emateko erakutsi eben borondate ona. Baita goragarria, jai hau antolatzeko, Gernikako gazteriaren lana ere. Zorionak, Patxi eta abar, eta jarrai zuen lanean.

Arratsaldeko 7-etan, ume ta ikusle guztioek, «Agur Jaunak» abesturik, elkar agurtu genduan, beste urte baterarte, egun batean, Gernikako herriari giro berezi bat eman ostein.

JOSU

## MUNGIALDEA

Ba da denboralditxoa, Mungian alkate ofizial barik gagozela. Eta, dabiltzan zurrumurruei jaramon egiten badeutsegu, oraindikarren ez dakigu nor izango dan ere. Antza danez, herriko gizon kapazitateak ez dabe alkate izan nahi. Ba leitekete «horrelako» gizonik ez egotea ere.

Nire azkenengo berri ematean, herriko ganora bako huringintza salatu neban. Orain, ostera\*, esan behar dot, sektore batzuetan ba dabiltzala zerbait konpontzen. Ea aurrera jarraitzen daben, inguru guztiak ganoraz jarri artean, euren obligazioa horixe da ta.

Uda honetan igertoki\* bat estreinatu dogu herrian. Hasi zirenetik hona, ordua izan da amaitzeko; baina hobe da berandu, inoiz ere ez baino.

Uda honetako ostiraleetan\*, eta herriko gazte talde batek eratuta, Pop Dantza eukiten dogu Zubikoako dantzatokia; gainera, azken denboralditxoan, argi berriekin oso sikodelikatuta. Ez dot nahi hemendik salaketa haundirik egin, ze elementu onak ere ba dagoz eta txarto ulertuak izan leitekez. Baina ona lizateke eurekin elkarrizketa bat eukitea.

Gure herria ere ez da besoak lotuta gelditu euskeraren batasunari buruz. Nire ustez, alde batera utzi behar geunke holako diskusioak. Ari\* gaitzen danok lanean eta egin daigun bidea guztiok batera eta ez aurrez aurre.

Jataben (Marurin), denbora asko ez dala, alkate berria estreinatu dabe. Edadez gazte dateke\*. Ea egintzakaz erakusten dauan bere gatzetasuna, herriak odol berriaren beharrian haundia dauka ta.

Aurten Gamizko San Antolinak ezertariko gorabehera barik igaro dira. Udaleko\* errepresentanteak ez dira elizara joan. Hala ta guztiz ere, ez da egon jaialdi ofizialik.

I. J.

## KANTA BERRIAK

«Hegosa» diska etxeak argitara eman berri ditu:

1. «HERRIKOI MUSIKA SORTA» (Tamaino erdikoa).
2. «OSKARBI» (diska haundia)

Laster agertzeko:

1. BENITO LERTXUNDI (txiki bi).
2. BEÑAT SARASOLA (txiki bat).
3. OSKARBI (gabon kantak)
4. XABIER SALDIA.
5. AITOR BADIOLA.

## BILBO

### Jolasetako señoritoak eta euskera

Negurin, «Club Jolasetako»-ko señoritoek abesti sariketa bat antolatu dabe, eta sari bat emango deustoe gazteleraz hobeto idazitako abestiari. Euskerarentzat ez dabe horrelakorik egin. Beharbada, dotoreegiak dira Jolasetakoak, euskera lako hizkuntza pobre bat han sartzeko. Eta, gero, sasi-marxista batzuk etorriko jakuz esaten, euskera hizkuntza burges bat dala.

### Inginadoreak alkate

Nik ezagutzen ditudan Bizkalko herri nagusietan, Inginadoreak\* dira alkate, eta, euren karreretan ikasitakoari jarraituz, administrazioa ahal dan ondoen errotan ahalegintzen dira.

Baina nahikoa ote da hori, huri nahiz herri bat gobernatzeko? Adibidez, inginadoreak alkate diren huri ta herrietan, jaiak gatz bakoak dira, ume ta zaharrentzako parkerik ez da egiten, uso ta abere politekin ez dira parke ta jardinak betetzen, zuhartzak\* eta loreak ez dira ugaritzen.

Zergatik ez da proba bat egiten, eta Inginadore baten lekuan poeta bat alkate jartzen?

### Euskera Bilbon

Bilbon, 410.000 bizilagunen artean, 40.000 inguru el gara euskal dunak.

Euskerazko mezak, jalegun eta jal bezperetan, 14 dira; eta eurretara 8.000 euskaldun inguru joaten dira. Non dagoz beste 32.000 euskaldunak? Ateok ote dira, edo ez ote dabe maite euskera?

Ikastolak hasi dira lanean. Lehengoak haunditu egin dira, eta beste batzuk berriak dira. Euskal ikastola honeetara, aurtengo ikastaroan, 1.500 bilbotar ume joango el dira.

ANAITASUNA-k Bilbon, gaur, 983 harpidedun ditu. Beraz\*, 17 falta dira milara heitzeko.

XABIER GERENO

### «Neure amari»

Zeuk eman zeunstan bizitza:

zure eskuak neure eskuak,

zure bihotza neure bihotza.

Zeure eskutik ibiltzen ikasi neban,

lehenengo otoltzak zeugaz egin nituan,

nire lehenengo hitza «ama» izan zan.

Zeuzara nire amatxu.

JOSEBA TXARTERINA GERENO

13 urteko bilbotar



## CASA VASCA

RESTAURANTE

Ayda. del Ejercito, 13 - 15

Telefono 35 47 78

BILBO

## GASTEIZ

Jaime de Altubek «La Voz de Guipúzcoa» egunkarian idazten dau, Gastelz eta Araba guztirako orrialde berezi batean. Irailaren\* 13-an hauxe inoan\*:

### Euskal Diputazioak ez dira biltzen

«Espainiako edozein eskualdetako\* erakunde\* bereziek (kasurako, Kataluniako Diputazioek) batzarrak egiten ditue sarritan, gure egunkarietan edonoiz ikusi leitekenez. Interesgarria da edozein euskaldunentzat, CESIN edo «Consejo Económico Sindical del Norte de España»-koak Bilbon elkarturik egotea... Baina CESIN-ekoek hartu leikeezan erabakiak ez dira ezertarako gauza izango, Diputazioek ezeren ardurarik hartzen ez badabe, eurok baitira\* honetarako medio ta posibilitadeak dituenak. Horregatik, Euskal Diputazioen bilkurak\* Herriak eskatzen ditu...

### Bilbo ez da arduratzen

«Egia esan, Bilbo arduratu egin behar lizateke hauzi honetan; baina, itxura danez, ez dau horretarako desira\* haundirik erakusten. Bilbo, dudarik ez, bere inguruko herrialdeei lepo bizkarra emanik bizi da...

### Bilbo ez da euskaldunen huriburua

«Ekonomia aldetik ba dateke\* Bilbo euskaldunen huriburua, baina ez kultura aldetik, katalanentzat Barcelona dan bezala. Zer dau Bilbok kultura aldetik? Gauza haundirik ez. Bilboko Unibersidadea bera ere, sekula ez da larregirik arduratu pentsalariak sorrazten, eta bai komertzialariak. Gipuzkoa, ostera, gure ustez, indartsuago dabil kultura aldetik. Ba dira zenbait giputz\*, euren probintzaren alderako lan sakonean ari\* direnak. Gure eirtziz, Bilbok Euskal Herriaren huriburua izan nahi badau, Euskal Herri osoaren ardura euki behar leuke. Transporteak, Unibersidadea, ura eta industriagintza dira gure arazoak; eta Bilbo guztiokin arduratu behar lizateke, baina guztioi begiraturaz...»

### Javier Arzuaren deia

Alpatu dogun Jaime de Altuberen artikulua komentatuz, ba dino Javier Arzuak Irailaren\* 15-eko «La Voz de España»-n: «Zergatik ez deustoe, aurrelari bezala, Gipuzkoako Diputazioak lanari ekiten?»

### Bizkaiko Diputazioaren ardura

Aurtengo ekainean\* agerturiko Bizkaiko Diputazioaren zirkular batean, jarraiko hauxe esaten da, «IV Asamblea de Instituciones de Cultura de las Diputaciones»-era dei bat eginez: «Previsto su desarrollo, entre los días 29 de septiembre y 3 de octubre, se extenderá también a las provincias hermanas de Guipúzcoa y Alava...» Eta aurreratxoago: «Hacemos un cordial llamamiento a las Corporaciones e Instituciones que todavía no se hayan suscrito, para que lo hagan y acudan a Bilbao a colaborar en una tarea que a todos nos ha de beneficiar.»

## IRUÑEA

### Apaizak, kristauak eta besteak

«Ollar» ezizenagaz sinaturik\* hurrengo hauxe irakurri dogu irailaren\* 9-ko «Diario de Navarra» Iruñeko egunkarian:

«Jende askok nahastu egiten ditu apaizak eta erlijioa, edo gauza berberatzat eman. Ez dago errakuntza haundiagorik. Nire ustez, asko bai asko dira apaizen artean, sotana eskegi behar leukeenak, eta egingo dabenak behar baino askoz gutxiago dira; ta, zoritxarrez, sekula ezer ez irakatsi ez eman ez euskuenek, horreek ez dabe, ez, habiturik eskegiko.

«Ba dakit, Kardinal jauna tristerik dagoena. Kristau guztiak, ni bezalako epeel samarrak ere bai, nahiko arduratuta gabiltza. Ze, bai batetik eta bai bestetik, jendea alderdi txikitian pilatzen da, elkarrizketa barik, bakoitzak bere landa ta soloak guztien gainetik defendituz.

«Oraindik oraintsu inostan Unibersidadeko mutil batek: «Zuoi, nafarro, ardura haundia ematen deustoe erlijioa gauzek. Guri ez. Guk irakurri ere ez ditugu egiten apaizei buruz idazten direnak. Guretzat, apaizen hauzi hau zaharren, burgesen nahiz gugandik urruti dagoen gizarte baten arazoa da.»

«Eritzi horretakoak ez dira gehienak izango seguru asko, nire adiskideak halan uste izan arren. Baina, ondo pentsatuz gero, ona izango da beti, jenteak eztabaidan jardun daiala, hurrengó Pastoralerako Bikarioaren elezioa dala edo San Miguel Aralarko Seminario-Kolejioko gorabeherak direla ta...».

# FRANÇOIS MAURIAC

François Mauriac hil da. Nobelagintzaren klasiku bat bihurtuta egoen la, Academie Française-ko ta Nobel Saridun ohoratua\*. «Konkretuan lan egiten dauan metafisikua» hil egin da, berak bere burua definitzen eban legez. «Uniberso katolikua sentigarri, ukigarri\*, esperimentagarri bihurtzen ahalegindu naiz», esan eken bere lan luzeaz Gironde-ko arima-deskribitzaile nekatu ezinak.

## IDAZLE FEDEDUNA

Mauriac idazle katoliku bat izan da erabat\*. Maminak utzi\* ta erlijioaren barrueneko forma radikalenetaraino, hezur\* mistikue-taraino sartu, ta han barrenean fariseokeria, gorrotoa, haragikeria ta azkenik grazia azterkatzen ausartu zana. Kontzesiorik egiten ez ekian-jansenista zintzo bat zan (bere bizl guztian kezkatu eban Jansenioaren nortasunak). Baina ez inkisitore zalako, erlijioaren esentzia bilatu gura ebalako baino. Mundu sekularizatu honetan gurutzea ta bizkundera bitzta moralean eta mistikan bilatzen saiatu dan belaualdi\* batekoa zan, Bernanos, Claudel, Bergson, Unamuno ta beste askogaz batean. Katolizismoaren eta mendeabaleko\* erlijio-kondairan, gloriak beteriko haro bat amaitu da. Atlantida espiritual bat hondora doa. Guk, gure belaundiak, ez dau mundu horretarako sarpiderik aurkitu. Barruan gaukaz misterio horrekek berorrek, baina mundu horren irteeran\* jaio gara. Mauriac bere denbora baino geroago hil da.

85 urte egingo zituan urriaren hamaikan; eta hil arte Jardun dau «behinolako mutikoak», beti gazte ta beti zerbait zahar, aspaldiko menderen\* batetik geure denborara ihesi\* etorritako eban bere baten antzean, luma eskutik utzi barik. Ondo ikusten eban berak —eta ezin sufritu— gaurko katolizismo «liberala». Baina ez zan gorroto gordez goritutako eztenagaz eskuinera ta ezker-rrera erasotzen\* ibili, bere gauzak esaten jarraitu izan arren. Bere belaualdiko besteren batzuek apokalipsiko tronpetak hartu ditue eskuetan, euren denbora akabatu danean, denbora guztiak akabatu balira legez: horra Maritain eta Daniélou kardinala. Ba dirudi, euren umeak irentsi\* gura leukeezala. Ez dakie besterik, denbora hau kondentzen baino. Baina guk ezin dogu denbora hau kondentatu, geure buruak kondentatu barik, ez gagoz geure denbora baino seguruago ta. Mauriac zintzoagoa izan da. Bere merezimenduen errentatik bizitzen gelditu barik, honezkero berea ez dala ezagutzen eban-mundu honetan ere, bere gauzak esateko ausardia\* ta apaltasuna euki dau. Eta bere gauzak esaten, azken azkenetaino jarraitu dau: gaixo-etxera sartu zan egunerarte aritu\* da, *Mémoires intérieures* bere azkenengo liburua jorratzen. I haz\* *Un adolescent d'autrefois* eskaini\* euskun, hamabost urteko Isl-lune luzearen ondoren, bere izen kotsakratua arriskatuaz. Bere burua itaunen\* eta dudaren zartaginan botatzen ekian-glizon Iraun dau azkenetaino.

Errespetuz beterik eta hunkiturik\* ikusi dogu Mauriac, berak fabrikatutako Jaungoiko-idoloak beti apurtu ta berriro hasten. Eta berak esaten zituan **Eliza, grazia, errebelazioa** edo antzeko berbak sarri guretzat ezer ere adierazi ezin eben-kontzeptuak baziren ere, ba genkian Mauriacen ahoan horreek ez zirela Inor hipnotizatzeko berba magikuak, misterio bila ilunetan joan danaren bide-seinaleak baino. Ta, gehiagotan oraindik, gurari bizl baten izen asmatua baino ez, nori jakin barik egindako otoitz bat. Mauriacek ez eban fedea sistima ta gartzela\* bihurtu.

Guretzat, horregatik, nobelari haundia baino askoz gehiago zan Mauriac, eskoiatik irten\* eta haren nobelak hausnartzen\* genduzanean. Eta hausnartu esan beharra dago hemen: Mauriacen nobelak, gaitzak\*, astiro ta kontzentrazioz irakurri behar-koak egiten dira gaur. Mauriacen mundua ez da gurea. Pertsonaien\* mugimendu guztiaren azpian geldi geldi dago Mauriacen nobela. Gertaerak eta egintzak, situazioak eta nobelaren trama guztia ere, azkenean, arima bakarrik ziren. Gizonaren arima nahasia\* ta bere grinak. Mauriacen fedea. Ta Mauriacen fedea bera ere eta berak grazia eritxon\* suge-gorrien habian edo Thérèse Desquaux-en pozoinetan\* argitzen ei dan «beste zerbait» misteriozkoa ere jadanik\* itxaropenik gabeko gurutze bat legez egi-ten jakuz. Lapikoen artean ere Jaungoikoa aurkitzen eban Santa Teresak, baina lauetarik hiru goserik dagoen gaurko munduan lapiko gutxlegi dago ta Jaungoiko gutxi geratu da.

## NON DAGO JAINKOA

Orduan, «non geratu dan» da gaur ostera\* ere jakin gura geun-kena. Problema horrexegaz berorregaz aurkitu ziren Europako in-telektual kristauak gerra haundien artean eta azkenekoaren on-doren ere. Denbora berean gizona zer dan itaunka\* ebiltzan esis-tentzialistak. Mauriac, esistentzialista kutsuko fededun, funtsean\* kontserbakor baina urduria\*, beti itaun horren atzetik ibili da. Eliza errime bat gura eban: berak esan eban legez, kanpoko gau-zetan ere errime\* ta aldatuezina egoen-Eliza. Hierarkia maite eban: Gaullista porrokatur\* zan. Eta nik neuk behintzat mitolo-gien urruntasuneko landuratan legez aurkitzen neban haren kris-tautasan pekatuz eta graziaz batea. Neure barru barrukoa, ta, hala ere, arrotz erabat\*. Mauriacen nobeletako drama guztia sis-tima seguru baten barrutik irten\* barik gelditzen da. Baina gure belaualdia\* sistima horretatik kanpora jausita jaio da. Pedagogo sadiku batek legez, desanimoz eta amorrazioz betetzen gaitu Mauriacek; ta bere indize-hatz zorrotz autoritarioak, sekula dudu-tu ez dauanaren bihotz gogorragaz, Jaungoiko ikaragarri baten zerua seinalatzen dau. Mauriacen gizonak, salbazio-sistima baten barruan salbatuak izatera kondentutako presoak dira. Ezin dabe salbatu barik geratzeko lain\* gaizto izan.

## ZINTZOTASUNA

Baina horrexegaz berorregaz dago sistimaren absurdua eraku-tsita. Elizan askok, eta Elizagaz beragaz identifikatuz, edozein mediogaz gorde gura leukee sistima. Mauriac sistimaren barruan mugitzen bazan ere (ta horrek estrainu samar uzten\* dau gaur-koentzat, azken finean), ez egoen sistimaren menpean: horrek eman eutsun azken azkenetaino beti berriro hasten, probatzen aritzeko\* indarra. Sistima tinko\* bat defenditu beharrean senti-tzen zan; baina, bera haren gaintetik egoelakoxe, bakarrik sentitu eiken sistima defenditu ahala. Hor dago Mauriacen misterioa eta erakarpena\*. Eta erakarri, ez dau bakarrik haren literatura ma-suak eta gure denborari jantziak erantzeko edo jantzeko bere gra-ziak *Figaro Littéraire*-ko «Bloc-notes»-etan erakartzen. Gerra on-doan euskaldun «gorrien» alde saiatu zan-Mauriac, idazle baino gehiago, nor-banako bakarraren bere buruarekiko moralitasuna zan. Ta hori beti saldu izan da garesti\*. Mauriacen pertsonaia\* asko ailegatzen da azkenean aitortza-situazio tipikuetara; ta Mau-riacen produzio guztia da hori, funtsean\*. Zintzotasun. Serlotasun Ikaragarria sentitzen da, horregatik, Girondeko bere burges-koxkor higuigarri baino barregarriagoen atzean. Ta haren munduak eta gure barnekoak kasik ezertan kointziditu ezin arren, Sinai men-diko hodeiak lakoxe errespetua sartzen dau haren nortasun mo-ralak.

J. A. OTAEGI

## ELIZAKO BERRIAK

### Sadan (Nafarroan) parroko berria

Jesus Abaurrea, Aoiztarra, Sadako parroko Jaun Izendatua izan da.

### Teologiazko hitzaldiak Belgikan

Irailaren\* 12-tik 17-ra teologiazko mintzaldiak izan dira Bruse-lasen. Munduko teologorik ospetsuenak bertan bildu\* dira. Eus-kal Herritik ere hainbat entzule joan dira. Baina hara joan ezin gaithekezenentzat non dira teologiazko hitzaldiak? Ba dirudi, Gas-teiz, Iruñe ta Bilboko fakultadeetan diren teologoek euren ikas-leentzat bakarrik berba egiten dabela, ez baitogu\* herrietan ha-reen hitzik entzuten.

### Irurungo parroko jauna hil da

Irailaren\* 11-n, kotxe ixtripu\* gaizto batean hil da Lorkan (Na-farroan) Jose Cruz San Juan, Irurungo parroko jauna. Goian bego.

# AMADO IRARKOLA

“Anaitasuna” ta Euskal Kulturaren alderako Irarkola.

ALDA. MAZARREDO, 35 - TELEFONO 21 84 09 - BILBAO-9

# ANAITASUNA

«ANAITASUNA» ARGITARATZEN, HOBEAGOTZEN ETA ZABALTZEN LAN EGITEN DABEN GUZTIEI, GURE ESKERRONIK GARTSUENA EMAN NAHI DEUTSEGU.

Esku artean dozun ANAITASUNA hau haundiago eta apalagoa dala uste dogu. Ez al deutzazu zure laguntza emango, hurrengo urtean are\* haundiago ta apalago izan dadin? EGIZU BESTE HARPIDEDUN BERRI BAT.

Izen-abizenak ... ..

Bizitokia ... ..

Herria ... .. Probintzia ... ..

BIZKAIKO AURREZKI KUTXAK Bilbon eta Probintzia guztian, laguntzarit zabalena ematen dihardu gizarte preminetarako, eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

Zure dirugordetzerako:

# Caja de Ahorros Vizcaina

Ofizinarik behinenak: Plaza de España, Bilbao  
Telefono 24 36 00 (bide ugariak) - 21 12 90  
URIAN, 16 AJENTZIA

Probintziako herririk nagusienetan 70 etxeordezko  
Madrileko ajentzia: I. C. C. A. Alcalá, 27  
Telefono 2 21 49 95

## 90 idazle ANAITASUNA-n

Urte bete osoan, 23 aletan, 90 Idazlek atera ditue euren lanak ANAITASUNA-n. Hamar artikulutatik gora egin dituenak, honeek izan dira: Anjel Zelaletak 50, Gereñok 34, J. L. Lizundiak 27, Imanol Berriatuak 23, Xabier Kintanak 17, Jose Antonio Aromak 16, Markina aldeko «Irukote» albistemalleak 11, Jose Azurmendik 11, Marixabel Arakistalnek 10. Guztioi ohorezko\* diru ordain bat eman jake. Nolzbait, ohorezkoa barik, justiziazkoa eman ahal izango dogu.

Berriemalleen artean, ANAITASUNA-ko Idazle batzordeak\* al-pamen bezl bat egin eutson Joan Antonio Aromari, haren kroniken bizkortasun, eskualdetasun eta orotasuna haintzat hartuz.



### «ANAITASUNA BIZKAIA»

Zuzendaria: Anjel Zelaleta Gisasola.  
Jabea: Kantauriko Frantziakotar Hirugarrendarrak. Intxaurrenondo, 3-Durango.  
Idazkola ta banakola: Jardín Txikerra, 1-Bilbao (12).  
XIX. urtea, 176. zenb., 1970. Irailak 30.  
D. L.: BI-1.753-1967.  
Inprimatzaillea: Imprenta AMADO, Bilbao.  
Irarlea: RALI, Bilbao.

# CENTURY

BEROTZAILE ERAMANKORRA



**Manakorra. Ximplea.  
Garbi ta bat-batean berotzen du.  
Merkeena.**

USA-n, Century Eng. Corp-ek egina



BEREIZGARRIAK		EX 60	EX 100	EX 160
Bero-indarra	kcl/	15.000	23.000	38.000
Gastua	l/h	1,5	2,3	3,8
Pisua	kg	19	25	33
Salneurria	pezetak	14.900	19.700	29.200

Obrak lehortzeko. Industri lehor-lanetarako. Tailerrak girotzeko.  
Plastikozko pintura eta barnizak gogortzeko.  
Autokarrozerietan pintura-kabinetarako.  
Zure etxea berotzeko ezik, danetarako!

Eskabide eta galderak: **BURDINLAN** Salaberria, 5, tel. 1 04 30 - apartado 628. **DONOSTIA**

## ONGARRI Pentzuak

S A R B - en ardurapean eratuak

Pentsatu ondo ta pentsutu ondo zure ganadua.

Burubako egina, alperreko ekina.

ONGARRI-k, barriz, buruz egiten ditu pentsuak.

ONGARRI pentsuak ezagutzen ez badozuz, probatu eizuz

Egazti, txarri, koneju, txahal gazte, esne-behi, aragitako txahal: danentzako pentsuak, bakoitzari dago-kiozanak. Baita ALIVO esne autsa be txahal txikientzat

**Eskatu gure banatzaileari edo zuzenbide hontara**

# ONGARRI, S. A.

**piensos compuestos**

Valle de ACHONDO (Vizcaya) - Teléfono 11

## KANTA BERRIAK





## I. HIZTEGIA

(Ale honetan Izartxo bategaz agertzen diren berbak)

ABAGADUNE, **ocasión, coyuntura.**  
 ADOS, **conforme.**  
 AGIAN, nonbait, aurki, **seguramante.**  
 AINTZINATU, aurreratu.  
 ALEGIA es decir, a **saber.**  
 ALOGER, **jornal.**  
 ARBUIATU, **despreciar.**  
 AREATZA, **Villaro.**  
 ARGAZKI, **retrato, fotografia.**  
 ARI IZAN, jardun.  
 ARITU, arl izan, jardun.  
 ARRAS, guztiz, zeharo.  
 ARRASATE, Mondragoe.  
 ARRETA, ardura, kontu.  
 ARRO, **cuenca.**  
 ASKI, nahiko.  
 ASTEARTE, martitzen.  
 ASTEAZKEN, eguasten.  
 AT, kanpoan.  
 ATEZU, **tensión.**  
 ATZIZKI, **sufijo.**  
 AURRIZKI, **prefijo.**  
 AUSARDIA, **atrevimiento, valentía.**  
 AZPIDURA, **infraestructura.**

BAILARA, hauzune.  
 BAITA, bait da, da ta.  
 BAITAGO, bait dago, dago ta.  
 BAITIRA, bait dira, dira ta.  
 BAITOGU, bait dogu, dogu ta.  
 BAITZAIZKIE, bait zaizkie, jakez **eta.**  
 BAITZIREN, bait ziren, ziren **eta.**  
 BAIZIK, baino.  
 BALDIN, kondizio bat indartzeko **hitza.**  
 BARATZE, ortu, **jardín, huerto.**  
 BARRUTI, **jurisdicción territorial.**  
 BATIPAT, gehienbat, batez ere.  
 BATZORDE, **comisión.**  
 BAZTER, baztertu.  
 BEDERIK, bederen, behintzat.  
 BELAUNALDI, **generación.**  
 BERAZ, hori dala ta, **por consiguiente.**  
 BILAKARAZI, bihurtu erazi.  
 BILDU, batu.  
 BILERA, batzar, bilkura.  
 BILKURA, bilera, batzar.  
 BITXI, **raro.**  
 BOLADA, unada, sasol.  
 BORDELE, Burdeos.  
 BUKATU, amaitu.  
 BURURATU, amaitu, bukatu.  
 DAGOKEZ, dagoz nonbait, **egongo dira.**  
 DAKUSAGU, Ikusten dogu.  
 DAKUSAT, Ikusten dot.  
 DARRAIKIO, jarraitzen jako.  
 DATEKE, da nonbait, izango da, izan  
 behar dau.  
 DESIRA, gurari.  
 DIRAUTE, diraeu, Irauten dabe.  
 FUNTS, muin, barne, barru.  
 GABE, barik.  
 GAINDI, gairiditu, **superar, vencer.**  
 GAITZ, gatx.  
 GALDERA, galde, Itaun, **pregunta.**  
 GALGA, **freno.**  
 GARESTI, karu.  
 GARTZELA, kartzela.  
 GISA, era, modu.

EDOZENBAT, zenbatnahi, zenbatgura.  
 EGUN, gaur.  
 EGUNKARI, eguneroko periodiku.  
 EKAIN, **junio.**  
 EKIALDE, sortalde, **Este.**  
 ENPARANTZA, **plaza.**  
 ERABAT, zeharo, guztiz.  
 ERAKARPEN, **atracción.**  
 ERAKUNDE, egitura, **estructura.**  
 ERAMAN, eroan.  
 ERASO, **atacar.**  
 ERDIETSI, lortu, jaritxi.  
 EREDU, **modelo.**  
 ERITXON, deitzen eutson.  
 ERIZPIDE, **critério.**  
 ERORI, jausi.  
 EROSO, **cómodamente.**  
 ERRIME, tinko, **firme.**  
 ESKAINI, eskeini, **ofrecer.**  
 ESKUALDE, **comarca.**  
 ESKUALDEKATZE, **planificación comarcal.**  
 ETSAI, arerio, **contrario, enemigo.**  
 ETSIPEN, **resignación.**  
 EZEN-ETA, **pues.**

HALABER, era berean, **berdin.**  
 HAR, hartu.  
 HARAN, Ibar, **valle.**  
 HARO, **época.**  
 HARREMAN, artuemon.  
 HAUR, ume.  
 HAUSNAR, hausnartu, **rumiar.**  
 HAUTATU, aukeratu, **elegir.**  
 HEIN, **grado, rango, proporción.**  
 HELBURU, asmo, **fin, objetivo.**  
 HERRIALDE, **provincia.**  
 HERTSI, itxi, **cerrar.**  
 HERTSIKERIA, **estrechez de miras.**  
 HEZUR, hazur.  
 HIRI, huri.  
 HIRIGINTZA, hurigintza, **planificación urbana.**  
 HORREGAITINO, **sin embargo.**  
 HUNKIGARRI, bihotzari eragiten de-  
 tsona.  
 HUNKITU, bihotzari eragin.  
 HURBIL, hurbildu, hurreratu; **hurre.**  
 HURIGINTZA, **planificación urbana.**

IGANDE, domeka.  
 IGERLARI, igerian daklana, **nadador.**  
 IGETOKI, igeri egiteko toki, **pisclna.**  
 IHARDUKI, **resistir, hacer frente.**  
 IHAZ, igaz.  
 IHESPIDE, igespede, **fuga.**  
 INGINADORE, **ingeniero.**  
 INOAN, esaten eban.  
 IRAIL, **septiembre.**  
 IRAULTZA, **revolución.**  
 IRAZTEGI, iragaztegi, **refinería.**  
 IRENTSI, iruntsi, **tragar, devorar.**  
 IRTEERA, urteera.  
 IRTEN, urten.  
 ITAUN, galde, galdera, **pregunta.**  
 IXTRIPU, **accidente.**  
 IZANEN, izango.  
 JADANIK, **ya.**  
 JAZO, gertatu, pasatu.

JIN, etorri.  
 KABU, **iniciativa.**  
 KARRIKA, kale.  
 KAUSITU, aurkitu.  
 KIROLA, **deporte.**  
 LAIN, beste, aina, bezalbat.  
 LAKET, atsegin.  
 LARUNBAT, zapatu.  
 LAUTADA, ordoki, **llanada.**  
 LEGEZ, bezala.  
 LEGUTIANO, **Villarreal de Alava.**  
 LEMA, **timón.**  
 LEZAZKE, leikez.  
 LIZARRA, **Estella.**  
 MAIZ, sarritan.  
 MARGOLARI, **pintor.**  
 MEA, **mina.**  
 MEMENTO, momentu.  
 MENDE, **siglo.**  
 MENDEBAL, **occidente.**  
 MUSKARIA, **Tudela.**  
 NABARI, **patente, notorio.**  
 NABARITU, aglrian ikusi.  
 NAHASI, nahastu.  
 NEHOR, inor.  
 NOSKI, **ciertamente, seguramante.**  
 OHARTARAZI, ohartu arazi, **hacer ob-  
 servar.**  
 OHORATU, ohore eman, **honrar.**  
 OHORE, **honor.**  
 OLA, fabrika.  
 OLDAR, **impulso.**  
 OMEN, ei.  
 OMENDATU, **homenajear.**  
 ONAR, onartu.  
 ONARGARRI, **aceptable.**  
 ONETSI, ontzat eman, **aprobar.**  
 ONURATSU, **provechoso.**  
 OPOR, bakazio, bakantza.  
 OPORKETA, bakazio, bakantza.  
 ORDEA, ostera, berriz.  
 ORDIZIA, **Villafranca de Oria.**  
 OREN, ordu.  
 OROBAT, **berdin.**  
 OSTEGUN, eguen.  
 OSTERA, berio, berriz; **ibilaldi, viaje.**  
 OSTIRALE, bariku.  
 PERTSONAIA, **persona je.**  
 PREMIA, premina, **necesidad.**  
 PORROKATU, sutsu.  
 POZOIN, **veneno.**  
 SINATU, izenpetu, **firmar.**  
 SINETS, sinestu.  
 TANKERA, taxu.  
 TINKO, errime, **firme.**  
 UDAL, **Ayuntamiento.**  
 UKAN, euki, izan.  
 UKIGARRI, ikutu ahal dana, **palpable.**  
 URDURI, trankil ez dagoena.  
 URRATS, pauso.  
 URLIA, **tal.**  
 UTZI, itxi, laga.  
 XIPI, txiki.  
 ZALANTZA, **duda, ezbal.**  
 ZENBAIT, batzuk.  
 ZERGA, **contribución.**  
 ZIN, **juramento.**  
 ZIOEN, inoan, esaten eban.  
 ZION, inoan, esaten eban.

## II. IDAZTEKO MODUA

**Txarto:**

Afirmazlo hau gogorregla dirudi.  
 Bakoltzak lotu beklo gustatzen jakon arazoari.

**Ondo:**

Afirmazlo honek gogorregla dirudi.  
 Bakoltza lotu beklo gustatzen jakon arazoari.

# GORBEALDEA

Arabako Diputazioaren eskualdekatzeko berrian, «Estribaciones del Gorbea» izeneko eskualdea agertzen da. Guk Gorbealdea deitzen deutsagu, alde atzizki horrek euskal toponimian bere balioa dauka ta.

Eskualde hau historian ez da behin ere agertzen. Lehenengoz Urkabustalz eta Zula, Osingani eskualdean egozen. Gero Urkabustalz Alalarekin elkartu zan, eta, Zuia bera buru zala, Zuia talde barruan egon da joan dan menderarte. Zigoitia, berriz, Mendotza taldean sartuta egon da azkenen menderarte; eta Legutiano ta Aramaio, Biaitziriko taldean. Beraz, gaurko planifikatzeak eskatzen dauan eskualde berri bat dogu Gorbealdea. Gorbea mendiarren barrenean dagoz hain zuzen ere eskualde honetako herririk gehienak; eta Gorbeako gaina ere eskualde honetan dago. Zula haraneko udal barrutikoa da ta.

## Udalak eta mugak

Goiko lerroetan ikusi leitekenez, eskualde hau bost udalok osotzen dabe: Urkabustalz, Zuia eta Aramaio haranek, eta Legutianoko huriak bere herririk. Eskualdeak 57 herrirka ditu, 6.127 bizilagun eta 406.27 km.<sup>2</sup>.

Eskualde honetan sartu letekez, orain Bizkaiko diren Otxandio eta Ubidea herriak, geografiaz eta harremanez Legutianorantz jotzen dabe ta.



Eskualde hau, Iparraldetik, Gorbea eta Anboto mendiek mugatzen dabe, Orozko, Zeanuri, Ubidea, Otxandio, Abadiño eta Atxondoko herriekin. Hegoaldetik, Kuartango, Foronda, Gasteiz eta Ubarrundiak. Eklaldetik, Leniz haraneko lau herriek; eta Mendebaldetik, Aiala eskualdeko Arrastaria eta Lezamak.

Hibalak: Bala izenekoa, Gorbean jalo eta Zula ta Urkabustalz haranek igarotzen dituana; Zala, berdin Gorbean jalo eta Zigoitia harana zeharkatzen dauana; Urkiola eta Santa Engratz, Legutianotik pasatzen direnak; eta Aramaio hibaia, haran horretatik zehar Arrasaten Deba hibalarekin bat egiten dauana. Beraz, azkenengo haran hau Deba hibal arrokoe da geografiaz, eta ez Araba aldekoa.

Bide asko igarotzen dira eskualde honetatik: Bilbotik Gasteizera doazen bi, bata Barazar mendiatetik zehar eta bestea Altube mendiatetik doana; lehenengoa Legutianotik igarotzen da, eta bigarrena Zuiatik eta Zigoitiaren behe aldetik. Durangotik Gasteizera ere, Urkiola, Otxandio eta Legutianotik zehar doa; eta Arrastetik Legutianorako, Aramaiotik igarotzen da. Baina, eskualde hau bide garrantzitsuek zeharkatu arren, eskualdeak berak ez dauka bide egokirik bere herrien elkar bizitzarako; esate baterako, hango herri nagusi bien artean, Legutiano eta Murgian artean, bitartean Zigoitiako Gopegi hurburu dala, bide hestu eta oker bat dago. Hemen ikusten da, bai Araban, bai Bizkalan eta bai beste herrialdeetan ere, Espainia ta Frantziako «sistema radial» hori barruraino sartuta dagoela; eta orduan hurburuak bakarrik dago ondo komunikatuta, herriak eta eskualdeak txarto eta komunikazio barik, zeharkako sistemarik gabe. Bilbo-Balonako

autobidearen adarrak hemendik pasatu beharko dau, Altubetik, Urkiolapetik, igarotzen bada behintzat. Bilbotik Mirandarako trenbidea bertatik, Izarratik, igarotzen da. Lehen beste trenbide bat ere ba egoen, Maltzagatik Gasteizera; baina kendu berria da. Bilbotik Gasteizera zuzen joateko, beste trenbide bat egitekotan izan dira aspalditik, Izarratik artez Gasteizera, edo Lemonatik hasita Legutianotik zehar.

## Bizilagunak

Eskualde hau bizilagunez urrituz doa, geroago ta gehiago. 1950-1960 artean, ehuneko 2,39-ko atzerakada egin eban, esate baterako. Harrezkero Legutiano bakarrik gogortu da, baina gutxi; alde batetik industriak izan arren, jendeak Gasteizen bizitzen jarraitzen daualako, ez baita egon orain arte Araban eskualde buruak sendotzeko hurigintza politikarik, eta Gasteiz izan ezik beste herriak zerbitzurik gabe aurkitzen dira, eta kasu honetan dago Legutiano, Gorbealde eskualdeko herririk haundiena.

## Ekonomia ta huriburua

Industria aipatu dogunez, Legutianon dagoeko eskualdeko ola bakarrak. Nagusia, Larrabea inguruan, «Icoa Poliuretano» izenekoa. Zuian, adreilu eta igeltsu ola batzuk; Urkabustalzen zerraren bat; eta Izarran, trenbidearen ondoriokoa. Zigoitian ez dago industriarik, harrobiena kontatzen ez bada. Gorbea barrenean burdin meak dagoz, baina esplotatu barik. Aramaion ba da lantegi mordotxo bat, baina ez ola haundirik; beharbada Arrasateren ondoan egotea ez dau eroso aprobetxatu, Arabako zerga berezitasunekin baliatuz.

Baserri ekonomia da nagusia eskualde honetan; baina 47 km.<sup>2</sup> bakarrik dira landuak, 357 landa eta larre, eta gainerakoak baso hutsa. Abere ekonomia da behinena, baina onura gutxiagaz: 6.235 abelgorri, 15.051 ardi, 2.758 txerri, 616 zaldi-behor, 279 ahuntz, 225 asto eta 34 mando, orain bost urteko azken zenbaketan. Basotan, baso huts edo larre ta guzti, 287,18 km.<sup>2</sup> dira, gehienak herri basotan. Hemen bai agiri dala baso ekonomiarren politika baten beharrezana, bai herrien eta bai Diputazioaren aldetik. Beste edonon bezala, Gorbealde honetan ere baserriak elkartze premia gorrian aurkitzen dira. Aipatzekoa da, horregaitino, eskualde honetan, hain zuzen ere Urkabustalz haraneko Abornikano herrixkan, Busturialde eta Durangoaldeko gazte talde batek, baserri estruktura eraberritzeko, iraultza bat egiteko asmoetako lanean diharduala; eta, teoriatik praxira pasaturik, euren esperientziak Euskal Herriko baserri kondairan lortatz sakona utziko dauala uste dogu.

Turismo ekonomiak ere ba dauka bere garrantzia eskualde honetan, batez ere Murgian, Izarra eta Zigoitian. Udan eskualde hau bilbotarrez beterik aurkitzen da, eta benetan ba ditu horretarako toki atseginak.

Gorbealdeak nabarmenki agertzen dau bere huribururik eza. Legutiano izan leiteke aukerarik onena dauana, nahiz eta erdiren Gopegi egon; baina azken hau bide nagusietatik urrun gelditzen da. Arabak hurigintza egoki bat egingo baleu, kontuan eukirik Bilbotik Mirandarako trenbidea Izarratik igarotzen dala, Aramaio Arrasate hain hurbil dauala eta Legutiano hurburu izateko leku estrategikuan dagoela, bost udalen desaroiu armoniku bat euki leike eskualde honek. Bizkaia eta Gipuzkoara begira dagoen eskualde honen hazitzea ez dateko hain zaila planifikatze egoki batekin.

## Hizkuntza

Hizkuntza arloan, hementxe bakarrik egiten da euskeraz Araban; Aramaio haranean guztiek, eta Legutianon eta bere herriketan adinekoek. Zigoitian zaharren bat ote dagoen entzun dogu. Halan eta guztiz ere, Legutianoko apaizek ez dabe hori kontuan hartzen, eta lasai laguntzen deuse bertako hizkuntzari hiltzen. Asteko, beharrezkoa lizateke, bai Aramaio eta bai Legutianoko eskola batuetan euskera ematea. Nafarroako Diputazioak egiten dauana, Arabakoak ezin leike egin ala?

J. L. LIZUNDIA